



# HEZIKETA-PROIEKTUA GELAN



MARTA GÓMEZ JAÉN, CPAEN-NNPEKarekin lankidetzan  
*Nafarroako Unibertsitate publikoa [NUP]*



**Egilea** Marta Gómez Jaen

**Koordinatzailea** CPAEN-NNPEK

**Diseinua eta maketazioa** Funtsak

**Lege-gordailua** LD-8947596

**Sinatua** Marta Gómez Jaen

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a horizontal line at the end, positioned below the name 'Marta Gómez Jaen'.

# HEZIKETA-PROIEKTUA

## GELAN

**Aurkibidea**



## SARRERA

- 5 Proiektuaren formulazioa
- 6 Proiektu mota
- 5 Deskribapen eta justifikazioa
- 5 Jardueren aurkibidea

## CURRICULUMAREN KUDEAKETA

- 12 Helburuak
- 21 Oinarrizko gaitasunak
- 21 Edukiak
- 21 Zeharkako gaiak

## METODOLOGIA

- 55 Gela-proiektuaren heziketa-planteamendua

## JARDUEREN PLANTEAMENDUA

- 66 Ohiturak
- 66 Jarduerak:
  - 66 Behaketa eta ikerketa jarduerak
  - 66 Ekintza-esperimentazio jarduerak
  - 66 Komunikazio-jarduerak
  - 66 Azken jarduera

## 66 JARDUEREN BANAKETA ARLOEN ARABERA

## 66 BALORAZIOA

## 66 EBALUAZIOA

## 66 FAMILIENDAKO GALDETEGIA

## 66 PROIEKTUAREN KONKLUSIOA

## 66 BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA

# Sarrera

- **Proiektuaren formulazioa**
- **Proiektu mota**
- **Deskribapena eta justifikazioa**
- **Jardueren aurkibidea**

# Proiektuaren formulazioa

Ikastetxean lan egiteko modu egoki bat 3 eta 6 urte bitarteko ikasleekin proiektuen bitartez da.

Ikastetxean lan egiteko modu egoki bat 3 eta 6 urte bitarteko ikasleekin proiektuen bitartez da.

Adierazitako proiektuak Haur Eskolako Curriculumaren alderdiak ikasleekin lantzea ahalbidetzen du, eta, era berean, haien gaitasunen garapena errazten du. Alderdi ekologikoak, berriz, zeharka modura lantzen dira, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoak azpimarratuz. Proposatutako jarduera guztiak ohitura, esperientziaz, ekintza, behaketa eta ikerketa jardueretan berezita daude, nahiz eta haien multzoak proiektuaren ideia orohartzaileari ematen dion bidea, era berean, haur eskola arloak osatuz.

Uneoro gelaren giroa kontuan hartuko da ikasleak gai honetara hurbil daitezela eta batez ere piktogramen bitartez bisualki ezaugarri eta praktika ekologikoak antzeman ditzaten.

Ikastetxeak landatzeko baimena duen baratze txiki bat edo gune bat izatea gomendatzen da. Zainketa eta landaketarendako diren lursail hauek "gure eskola-baratze txikia" izendatuko ditugu. Bertan heziketa-praktikako jarduerak burutuko dira, ikasleen lan aktiboa sustatuz, haien ikasketa prozesuaren jabe izaten utziz, baita elikagaien ekoizpen prozesuaz ere.

Proiektu hau Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologiko Kontseiluaren (Producción Agraria Ecológica de Navarra) ekimen modura sortzen da, CPAEN-NNPEK bezala ezagunagoa, heziketa-praktika sustatzeko eta produktu ekologikoen kontsumoak ekartzen dituen alde onez jabetzeko. Alde positibo hauek elikagaien kalitatearekin zerikusia dute organismoarendako ziurrak baitira, eta, hortaz, gizaki eta animalien osasunerako behar diren mantentzeak eta bitamina guztiak baitauzkate. Kalitatezkoa da ez direlako gai toxikoak erabiltzen eta osasuna babesten laguntzen dutelako, nekazariena eta era berean ingurumena zaintzen da.

Aldeko ekonomia bat mantentzen ahalbidetzen du, baita ingurumenaren zainketa ekosistema jasangarri bat lortzeko ere.

Azkenik proiektu honen egitura argi eta garbi zehaztuta dago, baina behar bezain zabalik, haren edukiak edota iradokizun metodologikoak egoera eta heziketa-maila desberdinetara egokitzeko.

# Proiektu mota

Proiektu hau baliabide bezala ulertu behar da Haur Eskolako ikasleekin estrategiak garatzeko.

---

Haren aplikazioaren bitartez ekologian eta elikagai ekologikoen kontsumo arduratsuan ikasleri jantzia sustatu nahi da. Balio etiko eta moralak ere sustatu nahi ditu jarduera eta lanen bitartez, ardurak haien gain hartuz erabakiak hartzearen eta ingurumenaren hobekuntzaren bidez.

Gelaren heziketa-proiektu honen helburu globala honako hau da:

“Hezkuntza-komunitate osoari sentsibilitate eta kontzientzia handiagoa eskuratzeko laguntzea gizateriaren potentzia hobetzeko eta gizarte-ongizatea eta banakakoa ingurune biofisikoa eta giza ingurunea harmoniaz garatzeko. Era berean, produktu ekologikoen kontsumo eta ekoizpenaren sustapenera bideratuta dago, baita ingurumena zaintzearen garrantziaren kontzientzia-hartzea kalitatezko ekoizpen baterako. Honek etengabeko prozesu iraunkorra dakar, eskolatik hasi eta landu behar dena heziketa-ziklo guztietan.”

Kontuan hartzeko beste helburu batzuk:

- » Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoen printzipioak kontuan izanik ingurumena mantentzea nekazal eta abeltzain praktiken hurbilketaren bitartez.
- » Hurbileko produktuen kontsumo arduratsua ulertzen laguntzea, gure Autonomia-erkidegokoak esate baterako, Nafarroako Foru Erkidegokoak.
- » Landa-garapena sustatzea, Nafarroako Foru Erkidegoko produktu ekologiko eta garaikoak kontsumituz, era berean garapen ekonomiko jasangarri bat bultzatuz.
- » Ingurumen-hezkuntza sustatzea hezkuntza-komunitate osoan elikagai ekologikoen kontsumoa etxean eta ikastetxeko jantokian ingurune natural eta sozialean eragin positibo bat izatearen ulermena indartu eta alde izateko.
- » Ingurumen-hezkuntza lantzeak gizakion osasunean, naturan eta elikaduran dituen eragin positiboak ulertzea eta egiaztatzea ahalbidetzen du.

# Deskribapena eta justifikazioa

Pertsona izaki sozial bat da berez eta ingurune natural batean hazten da.

---

Moldatu egiten den ingurune natural hau errespetatu eta zaindu egin behar da izaki bizidun ororen baliabide nagusia baita garapen ezin hobea eta osoa lortzeko.

Ingurune naturalaren zainketa eta tratu onak gainerako ekosisteman eragiten du modu onuragarrian, eta honek mesede zuzenak eragiten ditu pertsonengan zein animaliangan.

Azpimarratu behar da badirela egin daitezkeen pertsonen zein animalien elikatze-praktika desberdinak. Beraz, proiektu honekin lortu nahi dena da egiten diren praktikak edozein izaki bizidunendako onuragarriak eta adeitsuak izatea.

Izaki bizidunari alde guztietatik mesede egingen dioten baloreak eta egiteko erak irakastea lortu nahi da: landare, barazki, fruta eta azienda zainketa onetik hasi jateko ohitura onen ezarpeneraino, betiere elikagai eta azienda ekologikoen kontsumoaren alde positiboak azpimarratuz, osasuna eta ekonomia ikuspegi batetik, kasu honetan gure Nafarroako Foru-erkidegoarendako.

Pertsonak izaki soziala izan eta komunikatzeko hizkuntzaren beharra izateaz gain, ekologiar buruz ezagutzak bereganatu behar ditu, lan egin behar denaz eta bere garrantziaren zergatia ulertzeko. Beraz, proiektu honekin lortu nahi dena da ikasleriak ezagutza eta kontzientzia hartzea ekologiaz mintzatzeko behar diren hizkuntza-hitzez, betiere duten adina kontuan izanik. Asmoa da egiten diren praktika ekologikoen gainean ikasleek oinarritzko ezagutzak erdiestea haien erabilera eta onurak ulertu ahal dezaten, lan eta jarduera desberdinen bitartez modu aktiboan haien ikasketa-prozesuaz jabe izaten utziz.

Azpimarratu behar da hau ere, guk, Nafarroako Foru-erkidegoan bizitzean, nortasun kultural berezkoa dugula leku zehatz batean bizi baikara, ohitura jakin batzuekin, barazki aniztasun aberats bat izateagatik bereizten gaituena, baita behi eta ardi-aziendaren kalitate handiarengatik ere, horregatik aberastasun eta aniztasun hau baliatu behar da haienganako interesa agertzea lortzeko eta baliotsua den zerbait bezala sentitzeko.

Proiektu honek gure elikagaien, aziendaren eta lurraren onura bultzatzen, baloratzen eta indartzen laguntzen du, protagonismo handiagoa ematen ahalbidetzen duena nekazal eta abeltzain praktikak ikuspegi ekologiko batetik hobetzen saiatzen bagara; modu honetan, gelako proiektu bat helburu ekologikoekin praktikan jartzea ikasleriari adin goiztiarretatik kontsumo arduratsu eta ekologikoak gure ingumenarendako eta norberarendako dituen onurak eta garrantziak ohartaraztea ahalbidetzen dio.

Alde onuragarri bezala kontuan hartuko da gaur egun geletan dagoen aniztasun kulturala aberastasun iturri bat baita, oso garrantzitsua eta ezinbestekoa, modu errealista eta hurbil batez ikuspegi ekologiko honen garrantziaz jabetzeko.

Beraz, alde ekologikoa duen gelako proiektu honek oinarrizko kompetentzia guztiak lantzeko balioko du, nahiz eta bereziki autonomian eta ekimen pertsonalean zentratu, eta ezagutzan eta mundu fisikoarekin duen interakzioan.



# Jardueren aurkibidea

## Ohitura

1. Kanta dezagun
2. Zer ikusten dugu, zer ikusi genuen?
3. Ikasitakoa gauzatzan dugu
4. Ureztatzen dugu
5. Zer ureztatzen dugu?

## Behaketa eta ikerketa jarduerak

1. Ikusten duguna deskribatzen dugu
2. Frutak eta barazkiak bereizten ditugu
3. Elikagai ekologiko eta ez ekologikoen arteko desberdintasunak
4. Baratze ekologikoetara bisita
5. Familiako nekazari baten bisita
6. Baserri-eskola batera bisita

## Ekintza eta esperimentazio jarduerak

1. Baratzegela
2. Baratze txokoa
3. Hiztegibaratzearen azala
4. Zer dago nire baratzean?
5. Koloretsu koloreztatu
6. Baratze-diseinatzaileak
7. Haize errotatxoak
8. Baratzetar kamisetak
9. Loreontzi-euskarriak egiten ditugu
10. Ikertzaile txikiak, elementu arrotzak
11. Haziak eta fruituak
12. Lekale koadroak
13. Laboreen egutegia
14. Lekaleak landatzen ditugu
15. Kiwi eta marrubi carpaccio tailerra
16. Limoi-edari tailerra
17. Zentzumenen tailerra
18. Zer zapaltzen dugu?
19. Belar-burua.
20. Urazak landatzen ditugu

## Komunikatzeko jardura

1. Asko al dakigu?
2. Galde galderak
3. Gure ideiak elkar ditzagun
4. Elkarrekin ikasten dugu
5. Ikusi makusi
6. Lanabesen ipuina
7. Gure baratze arauak
8. Bazen behin ...
9. Eskolako umeak eta ekiloreak

## Azken jardura

1. Performantzia
2. Hamaiketako ekologikoa

# Curriculumaren kudeaketa

- **Helburuak**
- **Oinarrizko gaitasunak**
- **Edukiak**
- **Zeharkako gaiak**

# Helburuak

Gelako proiektu honen abiaraztearekin,  
hau gauzatzean ikasleek datozen  
helburuak erdiestea lortu nahi da:

---

- 1** Ikasleen interesa piztu hurbilen duen inguru aldera, baita baloratzen eta mantentzen ikastea ere.
- 2** Ingurune-sentsibiltatea hezi, inguruaren zainketan eta hobekuntzan lagunduz.
- 3** Elikagaiak nola lantzen diren ikastea.
- 4** Jaten ditugun landareen ezaugarriak ezagutzea.
- 5** Ikasleak kontzientziatzea baliabide naturalen erabilera jasangarri eta zentzuzko bat egitearen beharraz.
- 6** Ingurunearekin adeitsuak eta osasuntsuak diren jateko eta kontsumitzeko ohiturak sustatzea.
- 7** Bertako produktuak eta etxeko gastronomia naturala baloratzea.
- 8** Ikasleak ingurune naturalaren errealitatera hurbiltzea, haien herri edo hiriko ingurune hurbilenean eraginez.

# Oinarrizko gaitasunak

---

## 1 Autonomia eta ekimen pertsonala

- » Lan errazetan ikasten hastea, jolas jardueretan eta egunerokotasuneko elkarbizitzan.

## 2 Gaitasun sozial eta herritarra

- » Gelako bizitzan aktiboki parte hartzeko trebetasuna, herritar prestakuntzan ikasten hasteko moduan.
- » Ikuspuntu desberdinak errespetatzea.
- » Beste kulturetako ekarpenak ezagutzea.
- » Taldean lan egiteko trebetasunak.
- » Talde planifikazioan estrategiak eskuratzea.

## 3 Ikasten ikastea

- » Euren gaitasun eta mugez jabetzea.
- » Motibazioa, norberaren konfiantza eta ikasteko zaletasuna sustatzea.
- » Ikasteko estrategia desberdinen erabilera: behaketa, ekintzen erregistroa, taldeko lana, jardueren plangintza eta antolaketa, errekurtsoen ezagutza eta informazio iturriak.
- » Inguratzen gaituenaz galderak planteatzeko jakin-mina eta izan litezkeen erantzun desberdinen bilaketa.
- » Informazioa lortzeko trebetasunak, banaka edo laguntzarekin, ezagutzetan bilakatzeko, informazio berria aurre-ezagutzekin eta norberaren esperientziarekin erlazionatuz eta osatuz.
- » Eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak testuinguru desberdinetara eta eguneroko egoeretara aplikatzea.

## 4 Gaitasuna ezagutzan eta mundu fisikoarekin elkarrekintzan

- » Osasun eta kontsumo eremuetan autonomiaz eta norberaren ekimenaz moldatzea, norberaren eta gainontzekoen ongizaterako.
- » Gune fisikoa hautematea eta elkarri eragitea.
- » Gunetik mugitzea eta honetan sortzen diren arazoak konpontzea.
- » Ingurumenaren baliabideen erabilera arduratsua.
- » Hizkuntzaren erabilera gertaerak ulertzeko eta inguratzen gaituen mundu sozial eta naturalarekin elkarri eragitea.

## 5 Gaitasun matematikoa

- » Errealitatea interpretatzeko eta adierazteko trebetasunak.
- » Adinera egokitutako datuak, informazioak eta arrazoibideak modu zehatzean interpretatu eta azaltzeko trebetasuna.
- » Oinarrizko elementu matematikoen ezagutza eta erabilera (zenbakiak, neurriak, ikurrak ...).
- » Eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko arrazoibideak praktikan jartzeko trebetasunak.

## 6 Gaitasun linguistikoa

- » Hizketan aritzea liskarrak konpontzeko.
- » Entzutea, azaltzea, hizketan aritzea ...
- » Testuen erabilera errealitatea azaltzeko, irudikatze eta ulertzeko.

## 7 Informazioaren trataera eta gaitasun digitala

- » Informazioaren bilaketa, aukeraketa, trataera eta erabilera euskarri desberdinetan eta helburu desberdinekin.
- » IKTak erabiltzen trebetasunak.

## 8 Gaitasun kultural eta artistikoa

- » Nafarroako Foru-erkidego bertako kultura-adierazpenak eta gastronomikoak ezagutzea.

# Edukiak

---

**1**

## Norbere gorputzaren ezagutza eta kontrola Eta norberaren autonomia

- » Gorputza beraren sentsazioak eta pertzepzioak. Zentzumenak eta haien funtzioak.
- » Gorputz-mugimenduaren koordinazioa.
- » Motrizitate xehe eta mardularen koordinazioa.
- » Leku eta denboraren oinarrizko kontzeptuak.
- » Laguntza eta elkarlan jarrera ikaskideekin.

**2**

## Gainontzekoekin elkarbizitza eta inguruaren aurkikuntza

- » Inguru hurbilaren behaketa, aurkikuntza eta deskribapena.
- » Urte sasoi desberdinetan laborantza aldaketen bereizketa eta ezagutza.
- » Animalia eta landareen antzemate sinplea.
- » Gizon-emakumeen betebeharra ingurune naturalaren kontserbatzaile eta landatzaile bezala.
- » Animalia eta landareenganako jakin-mina, zainketa eta errespetua hasierako jarrerekin ingurune naturala mantentzeko.
- » Elikagaien ezaugarri fisiko eta zentzumenenak: kolorea, tamaina, zaporea, soinua, gogortasuna ...
- » Elkarlana eta laguntza eguneroko lanak egiteko eta besteei laguntzeko.



### 3 Hizkuntzaren eta komunikatzeko trebetasunen garapena

- » Hizkuntza komunikatzeko bide bezala.
- » Ipuinen, kontakizunen eta ahozko mezuen ulermena.
- » Kultura-tradiziozko ahozko testuak: ipuinak, atsotitzak, asmakizunak ...
- » Hizkuntza idatzia komunikatzeko, informatzeko eta goatzeko bitarteko bezala.
- » Hizkuntza idatziaren baliabideak: piktogramak, errotuluak, irudiak ...
- » Pertzepzio-higiarazle garapena.
- » Hitz sinpleen produkzioa.
- » Beste hizkuntza baten hitzen ezagutza.

### 4 Zenbakizko adierazpidea

- » Zenbakiak.
- » Kalkuluaren hastapena batu, bereizi eragiketekin, gauzen erabileraren bitartez.
- » Neurtzeko oinarritzko kontzeptuak.
- » Objektuen ezaugarri eta erlazioak: kolorea, itxura, tamaina ...

### 5 Adierazpen plastikoa eta sormena

- » Adierazpen plastikoaren oinarritzko teknikak: marrazketa, margolaritza, collagea ...
- » Collagearen erabilera hainbat material, forma eta kolorerekin esperimendazio baliabide bezala.
- » Interesa eta ekimena emanaldietan parte hartzeko.

# Zeharkako gaiak

Zeharkako gaiak ikuspegi kulturalak, etikoak eta moralak biltzen dituzte, gure gizartean garrantzi handia eskuratzen joan direnak; ikasleak oinarrizko balore batzuk hausnartzera eta barneratzera bultzatzen dituzte, pertsona osasuntsuak, zintzoak eta ingurunearekin sentsibilizatuak izaten prestatzen lagunduko dituztenak. Horregatik, ezinbestekoa da modu orokortu eta osagarrian lantzea, jarduera guztietan eragina izan dezaten.

---

## Zeharkako gai bezala honako hauek aurki ditzakegu proiektu honetan:

- 1 Ingurumen-hezkuntza.
- 2 Kontsumitzailearen hezkuntza.
- 3 Baterako hezkuntza.
- 4 Osasunerako hezkuntza.
- 5 Herritar-hezkuntza eta moralaren hezkuntza.

Ingurumen-hezkuntzari dagokionez, berarekin erlazionatuta dauden arazoez ohartu nahi da, ingurumenaren babes eta hobekuntzan aktiboki parte hartzera bultzatuko duten jarrera eta baloreak eraiki, baita ikasleak trebatu janari arduratsuaren kontsumoan ere, ekologikoa kasu honetan.

Baterako hezkuntzari dagokionez, jarduerak egiterakoan neska eta mutilaren rola berdina izatea nahi da, baldintza berdinetan eta eskubide eta betebeharrak berdinekin. Arreta berezia jarriko da garbiketa lanetan eta materiala biltzerakoan, jolasetan, antzerki lanetan... Honek erlazio afektibo betegarriak finkatzen laguntzen du sexu bietako pertsonekin, eta, era berean, banako desberdintasunak errespetatzen.

Kontsumitzailearen hezkuntzak jarrera kritiko eta arduratsu bat sustatu nahi du kontsumorantz familiako erosketan haiek baitira nolabaiteko eragina dutenak eta, adin hauetan, era desberdinetako ohitura egokiak sortzen ahalbidetu ere egiten du.

Zeharka modura ere osasunerako Hezkuntza landuko da gelan ohitura eta jarduerak desberdinen bitartez. Zeharkako gai honek autonomia bat garatzea suposatzen du osasunarekin erlazionatutako jarduerak egiterakoan eta norbere aukerak baloratzerakoan.

Ondorio bezala, umeen hezkuntza fisiko, sozial, afektibo eta moral osoko garapena lortzean datza, haiek kontzeptu, prozedura eta jarreraren ezagutza bat lortzea suposatzen duena. Horretarako, oinarritzko kontzeptuez gain, balore egokiak transmititu behar ditugu pertsona izaki oso bat bezala trebatzeko gizaratean. Horregatik beharrezkoa da gai haiek zeharka erabiltzea, proiektuaren eta hezkuntzaren edozein unetan kontuan izateko.

# Metodologia

**Gela proiektuaren  
heziketa-azalpena**

# Gela proiektuaren heziketa-azalpena

Gela-proiektu honen bitartez ekologia, ingurumena, kontsumo arduratsua eta abeltzaintzaren zainketarekin erlazionatutako gaietan teoria eta praktika artean dagoen lotura azaldu nahi da.

Gai hauek ikertzeak haur eta lehen hezkuntzako ikasleekin adimen kontziente eta kritikoak sortzea ahalbidetzen du kontsumo arduratsu eta jasangarri bat sustatzeko garaian. Era berean, gai hauek jarduera motibagarriekin garatuko dira, Haur eta Lehen Hezkuntzako curriculumaren eduki desberdinak sartuz.

Gela-proiektu honekin lortu nahi da ikasleek hazkunde harmoniko bat garatzea, nekazaritza eta azimenda-produkzio ekologikoen, elikagaien kontsumo arduratsuaren eta produkzio-prozesu desberdinen jakintzetara hurbilduz. Honela, egunez egun eman daitekeen ohituren aldaketaz kontziente izanen dira etorkizuneko gizartea bultzatu eta hobetuz, halaber kontziente izanen dira zergati eta ondorio onuragarri posibleez Nafarroako Foru-erkidegoarendako eta planetaren gainerakoendako.

Gela-proiektu honetan irakasleak ere betebeharrak garrantzitsu bat du gaitasunen garapen hoberenaren alde egiteko, baita tresnak emateko eta ikasleen artean galderak sorrarazteko ere, jokaera modu kritiko eta arduratsuan zuzenduz eta balore txeratsu eta sozio-moralak sustatuz.

Proiektu bat burutzeko, jarraian datozen metodozko printzipio batzuk kontuan izan behar ditugu:

- » Ikasleen garapen maila abiapuntutzat hartu, gaitasun kognitiboa kontuan hartuz eta alde aurreko ezagutzak ekologiari eta nekazaritza ekologikoari dagokienez.
- » Edukien ikasketa adierazgarriekin eraikuntza ziurtatu (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak), kontuan edukiz ikasleek haien ikasketa prozesuaz kontzienteak direla, ikasi ikasten gaitasuna bultzatuz, alde aurretik eskuratutako ezagutzen eta ezagutza berrien eraldaketaren eta elkarrekiko erlazioaren agente aktiboa eta kontzientea azalduz uneoro.

Proiektu hau gauzatzeko metodologia hobereana estrategia eta jarduera multzo baten erabileran oinarritzen da ikasleei giro batean bizitzen uzten diena non ekologiaren eta jasangarritasun ekologikoaren printzipioak haien etorkizunerako pertsona iaio bezala euskarri nagusiak diren.

Proiektua ikasleak ekologiarekin erlazionatutako informazioa bilatzen eta aurkitzen arduratu eta kezkatu behar den ikerketa bat da. Bitartean irakaslea gidaria eta iker-tzaile-kidea beharko du izan proposatutako galderei erantzunak bilatu eta aurkitzeko

sormenez eta lankidetzan. Material didaktikoa eskaintzen da fitxa eta jolas elkarreragile moduan, baita baratze ekologiko baten landaketa eta zainketa lanak eskolan ere. Planteatutako jarduera guztiak beste lan prozesu batzuekin lotu eta osatzen ahal diren ekimenak dira. Hezkuntza-proposamen hau gelaren Hezkuntza Proiektuan bihurtzeko, Haur eta Lehen irakaskuntzako curriculum ofizialean oinarrituko da, planteatutako arlo, helburu eta edukiei garrantzia emanez, baita egingen den etengabeko ebaluazioari eta azken ebaluazioari ere.





# Jardueren azalpena

- **Ohiturak**
- **Behaketa-ikerketa jarduerak**
- **Ekintza-esperimentazio jarduerak**
- **Komunikazio jarduerak**
- **Azken jarduera**

# Ohiturak

Ohiturak hezkuntzan eta zehazki Haur Hezkuntzan, ikasleek egunero, modu egonkor eta iraunkorrean egiten dituzten ikasketa egoerak dira.

---

Adin hauetan oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektibo printzipioak errespetatzea, denboraren antolaketa ahalik eta naturalen mantenduz, jardueraren erritmoa behartu gabe eta denborazko konstanteak mantenduz.

Denborazko konstante hauek egunerokotasunagatik seinalatuta daude. Haur hezkuntzan egoera zehatz, sistematikoetan bihurtzen dira, egunean zehar eta egunen igarotzean modu erregularrean emanen direnak.

Haur Hezkuntzako ikasleriak ohitura hauek gutxi gorabehera sekuentzia bera izatea behar du ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Proiektu honetan sarrera ohiturak ditugu, hau da, harrera eta itxierakoak. Horretarako sarrera ohitura bezala kanta eta kontatuko diren ipuin desberdinak izanen ditugu. Horretaz gain, ikastetxeko landareak ureztatuko dira edota baratzean landutako elikagaiak. Halaber, egunari, hilabeteari, tenperaturari eta dagoen eguraldiari dagokion erregistro bat eginen da landatze garaiarekin eragina duten alderdiak baitira. Itxiera bezala, baratzekeo hiztegian eskuratutako hitz berriak idatziko ditugu.

# [ 1 ] “Kanta dezagun”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honek nekazaritza eta abeltzaintzaren inguruko hiztegia eskuratzen uzten die ikasleei. Alderdi musikalak erdiesten ere laguntzen du, esate baterako, erritmoa. Ikasleria gaiaren hiztegi espezifikoak lortzen doa aldi berean, hizkuntza-gaitasuna lantzen utziz. Jarduera dinamiko bat da, eta kanta entzuten den bitartean, bideo proiektioarekin kontatzen denez, ikasleek gorputz mugimenduak imita ditzakete, era berean motrizitatea lagunduz.

### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Ordenagailua
- » Bozgorailuak
- » Proiektorea
- » Kantaren hitzak

### TALDEKATZEA

Talde handia

### LEKUA

Gela

## HELBURUAK

1. Jarduerarekin gozatzea.
2. Hiztegi berria eskuratzea.
3. Motrizitatea laguntzea.
4. Kantaren hitzak buruz ikastea.
5. Kontzeptu musikalak eskuratzea.
6. Kantaren hitzak errezitatzea.

### MATERIALA:

Baserriaren inguruko kanta

Barazkien kanta

Fruten kanta

[ 2 ]

# “Zer ikusten dugu/zer ikusi genuen?”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honetan errepasso bat egin nahi da aurreko egunean ikusitako hitzekin. Jarduera hau proiektuak iraun bitartean egunero egingen da. Ikasleak batzarrean jarriko dira guztiak aktiboki parte hartzeko. Honek elkarlana errazten du, Batzarrean guztiak esan dezakete aurreko egunean zein hitz ikasi dituzten. Jarduera hau eskuratzen diren ezagutzen bateratze-lan bat da, haien arteko lotura bat ahalbidetzen duena, ikasketa esanguratsua bultzatuz. Hitz guztiak zerranda modura idatziko dira arbelean eta ikasleek haien Baratzeko-hiztegia gertu izanen dute landutakoa hobe oroitzeko.

### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Arbela
- » Klarionak

### TALDEKATZEA

Talde handia

### LEKUA

Gela

## HELBURUAK

1. Landutakoa aktiboki oroitzea.
2. Txandak errespetatzea.
3. Ikasitakoaren loturak sortzea.
4. Ikasketa esanguratsu bat bultzatzea.
5. Haien ezagutzen eboluzioaz jabetzea.

# [ 3 ] “Ikasitakoa irudikatzen dugu”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau proiektuan zehar egingen da, egunero. Eskuratutako hiztegi berria irudikatzea ahalbidetuko die egun bakoitzean. Jarraitu behar den txantiloia bat izanen dute, paper birziklatu gainean egingen den txantiloia. Ikasleak marraztu, itsatsi edo koloreztatu beharko du elementuaren irudi edo marrazkia ikasitako hitz berriaren gainean. Ondoren, idatzi egingo du. Azkenik, azken laukian, hitz horrekin lotutako zerbait idatzi edo marraztuko du.

### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Baratze-hiztegia
- » Koloretako margoak
- » Arkatzak
- » Errotulagailuak

### TALDEKATZEA

Banakakoa

### LEKUA

Gela

## HELBURUAK


1. Grafo-motrizitatea sustatzea.
2. Ikasitako hitzekin loturak ezartzea.
3. Ikasitakoari esanahia ematea.
4. Eskuratutako ezagutzak modu globalean irudikatzea.
5. Materiala zaintzea.





# IKASITAKOA IRUDIKATZEN DUGU

**\*Adibidea**




Handia

Pipitak ditu

Berdea

Arrosa

Asko pisatzen du



Handia

Pipitak ditu

Berdea

Arrosa

# [ 4 ] “Ureztatzen dugu”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau irakasleak egunero oroitaraziko digun ohitura bat izanen da hasterakoan. Ura elementu oso garrantzitsua da baratzean eta gure bizitzetan. Ureztigailu edo ur tanta baten marrazki baten bitartez, ureztatu behar dela adieraziko da. Baratzean jarrita badago, ureztatu behar dugun lekua adieraziko du. Honela ikasleek karteekin adierazitako gunek ureztatuko dituzte, ikastetxe osoaren komunitateko baratzea izanik ureztatuta dauden gunek izanen baitira.

### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Ureztigailuak
- » Ura
- » Ureztatu behar diren uneak adieraziko duten kartelak

### TALDEKATZEA

Talde handia

### LEKUA

Gela  
Baratzea

## HELBURUAK

1. Ureztatuko diren gunek identifikatzea.
2. Baratzearen egoera orokorra ulertzea.
3. Pasaguneak eta ureztatzekeo gunek errespetatzea.
4. Mintzaira sinbolikoa erabiltzea.
5. Uraren garrantzia baloratzea.
6. Lanabesak eta materialak egoki erabiltzea.
7. Elkarlana errespetatzea.

# [ 5 ] “Zein eguraldi dago?”

## JARDUERAREN GARAPENA

Irakasleek eguraldia behatzera laguntzen digute, oso garrantzitsua baita gure elikagaiak hazteko. Horretarako kartoi mehe handi plastifikatu bat erabiliko dugu, gelan kokatua. “Behaketa taula tankerako” bat izanen da, honetan arbela-errotulagailu batekin X bat markatuko da eguraldiaren datuen bilketa sistematizatzeko. Egunero eginen da, eskolan sartu eta ateratzerakoan, honela ere baieztatu ahal izateko eguraldia egun batean alda daitekeela. Horretarako gomets edo pegatinak jarriko dira leku egokian. Gertu izanen dugu termometro bat eguneko tenperatura ezagutzeko. Taula hau gelan jarriko da eta egunero arduradun meteorologo bat aukeratu da osatzeko, gelako gainontzeko laguntzarekin.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

- » Plastifikatutako taula
- » Termometroa
- » Arbeleko errotulagailua

Talde handia

Gela

## HELBURUAK

1. Eguneko eguraldia identifikatzea.
2. Eguraldiaren eboluzioa behatzea.
3. Zenbakiak tenperaturaren bidez lantzea.
4. Sarrera bikoitzeko taulak erabiltzea.
5. Ardurak onartzea.
6. Mintzaira sinbolikoa erabiltzea.
7. Behatzea.
8. Jardueran parte hartzea.
9. Zenbakiak ezagutzea.



EGUNA

HILABETEA

URTEA

TENPERATURA

GAURKO METEOROLOGOA

ESKOLARA  
IRISTEAN

JOLAS-  
ORDUAN

BAZKALTZEKO  
ORDUAN

JOATEN  
GARENEAN




# Behaketa-ikerketa jarduerak

Behaketa da umeek haien ingurunera hurbiltzeko duten modu arruntena. Honela, behaketa ezagutza ororen oinarria da adin goiztiarretatik, eta landu egin behar da zentzumen guztietatik aurrera, ikasleek inguruan dutenarekin harremanetan jarriz.

Behaketa Haur Hezkuntzako umeak tresna bezala erabiltzen duen prozesua da. Ekintza indartu behar dugun arren, nahitakoa eta sistematikoa da. Beti ez dela bide/tresna bat esan behar da, baizik eta askotan estrategia bat ere bada.

Ikerketa txikiak egitea, eta era berean hauetan alde desberdinak behatzea, ikasleei gaitasuna ematen die haien ezagutzen lorpenaren eta hauen aldaketaren protagonista sentitzeko.

Atal honetan, ikasleendako jarduera anitzak eta erakargarriak aurkitzen ditugu, parte hartze aktiboa bultzatzen dutenak eta baita ezagutzen eskuratze eta berrantolaketa ahalbidetzen dutenak ere.

# [ 1 ] “Ikusten duguna deskribatzen dugu”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honetan flashcards edo txartel didaktikoak erabiliko ditugu ikasleriak erakusten diren irudiak deskribatu ahal izateko. Elikagaien irudiak erakutsiko dira, frutak, barazkiak... eta horrelakoak, eta baita ardi eta behi-azienda ere. Halaber, irudiak erakutsiko dira edota (hobe) gelara eramanen dituzte elikagai ekologiko eta transgenikoak, behatu ahal izateko modu argi eta zuzenean haien alderdi estetikoan azaltzen dituzten desberdintasun posibleak. Elikagaiekin edo flashcards-ekin egin daitekeen beste sailkapen bat koloreka sailkatzea da, fruituka edota barazkika, forma geometrikoka, ikusmen alderdiak lantzea ahalbidetzen duena.

### BALIABIDE MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

- » Flashcards
- » Elikagai transgenikoak
- » Elikagai ekologikoak

Talde handia

Gela

## HELBURUAK

1. Barazkiak eta frutak bereiztea.
2. Ardi-azienda eta behi-azienda bereiztea.
3. Koloreka sailkatzea.
4. Forma geometrikoen arabera sailkatzea.
5. Ahozko adierazpena hobetzea.
6. Jarduerarekin gozatzea.
7. Elikagai ekologikoen eta ez ekologikoen ezaugarriak eztabaidatzea.

# IKUSTEN DUGUNA DESKRIBATZEN DUGU









# [ 2 ] “Frutak/barazkiak bereizten ditugu”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honek frutak eta barazkiak bereiztea du helburu. Irakasleak kutxa hori bat, kutxa berde bat eta kutxa laranja bat jarriko ditu. Ikasle bakoitzak lehenik elikagai bakoitza kolorearen arabera dagokion kolorearen kutxan jarri beharko du, (adibidez, kutxa laranja-azendaria) eta ondoren kutxetan sartutako elikagaiak barazki edota frutetan banatuko dituzte.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

- » Frutak
- » Barazkiak
- » Kutxa horia
- » Kutxa gorria
- » Kutxa berdea
- » Kutxa laranja

Talde handia / Talde txikia

Gela

## HELBURUAK

1. Koloreen arabera sailkatzea.
2. Fruta eta barazkien artean bereiztea.
3. Sartu kontzeptua bereganatzea.
4. Erlazioak ezartzea.
5. Elikagaiak aukeratzea frutak edo barazkiak diren arabera.

# [ 3 ]

## “Elikagai ekologiko eta ez ekologikoen artean desberdintasunak”

### JARDUERAREN GARAPENA

Fruta eta barazkiekin beteriko poltsak dauzkagu. Batean elikagai ekologikoak daude eta bestean ekologikoak ez direnak. Guztiak elkarrekin mahai gainean jarriko ditugu. Eta ikasleek antzeman beharko dute zein elikagai gustatzen zaien gehiago haien itxuraren arabera. Kasu honetan, saiatuko gara elikagai ekologikoak ez distirarik izaten, deformazioak izaten, elikagai ez ekologikoak, aldiz, distiratsuak egonen dira, erabat garbi eta deformaziorik gabe. Ondoren sailkapen txiki bat egingen da: “elikagai politak” eta “elikagai itsusiak”. Eta desberdintasun hauen zergatia azalduko da berez fruitu edo barazki mota bera badira. Behin hau eginda, fruitu dastaketa txiki bat egingen da, egoki garbituta eta moztuta, eta ikasleei galdetuko zaie zeintzuk izan dira gehien gustatu zaizkienak.

#### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Fruta eta barazki ekologikoak eta transgenikoak.
- » Platerak.
- » Labana.

#### TALDEKATZEA

Talde handia

#### LEKUA

Gela

### HELBURUAK

1. Alde kualitatiboen arabera sailkatzea.
2. Ekologiko eta transgenikoaren artean desberdintasunak ezagutzea.
3. Haien gustuak adieraztea.
4. Aktiboki parte hartzea.
5. Aldeak antzematea.

# [ 4 ] “Baratze ekologikora bisita”

## JARDUERAREN GARAPENA

Baratze ekologiko batera bisita egiteak nekazaritza ekologikoari buruz ideia orokorrago bat eskuratzea ahalbidetzen du. Bisita honetan ikus eta baieztatu dezakete nola antolatzen eta prestatzen diren guneak baratze ekologiko batean eta zein zainketak egiten diren elikagaia organikoak soilik izan dadin. Ikasleek parte hartze aktibo bat izateaz ere ahaleginduko gara bisitan, eriteia edo uzta biltzea bezala. Nekazariei eskatuko zaie ikasleei azal diezaietela zer lantzen duten, nola eta noiz hasi ziren, zer da gehien gustatzen zaiena... Bisitan, gainera, baratzeari, ekologiarri, lanabesei... buruz eskuratutako ezagutzak jarriko dira agerian. Era berean, ikasleriak baieztatuko du eskolan ikasitakoak edota egindakoak balioa duela. Behin ikastetxera itzulita, nagusienek fitxa bat osatuko dute. Txikienekin ahoz egiten da.

### BEHARREZKO MATERIALAK

» Fitxa

### TALDEKATZEA

Talde handia  
Banaka

### LEKUA

Baratze ekologikoa

## HELBURUAK

1. Aktiboki parte hartzea.
2. Eskuratutako ezagutzak erlazionatzea.
3. Beste testuinguru espazial batzuetan moldatzea.
4. Ardurak eskuratzea.
5. Beste testuinguru batzuetan harreman sozialak bultzatzea.

# BARATZERA BISITA



Baratzea bisitatzera joan gara:

Empty grid area for writing.

Nire lagunak erakutsi dit:

Empty grid area for writing.

Han bazuten:


Empty grid area for writing.

Gehien gustatu zaidana hauxe izan da:

Empty grid area for writing.

Gutxien gustatu zaidana hauxe izan da:

Empty grid area for writing.



# [ 5 ]

## “Aita-ama nekazari edota abeltzain baten bisita”

### JARDUERAREN GARAPENA

Familien parte hartzea eskolan haien seme-alaben ikasketa prozesuarekin kolaboratzaileak sentitzea ahalbidetzen du. Proiektu honetan nekazaritzan lan egiten duen guraso baten eta abeltzaintzan lan egiten duen beste baten kolaborazioa eskatuko da. Irakaslea ez den beste pertsona desberdinen bisitak geletara umek interes gehiago erakustea esan nahi du hauek kontu dezaketenarengatik. Aitak edo amak bere baratze edo aziendako irudiak proiektu ditzake eta baita material errealak ekarri ere, ikasleek ikusi eta ukitu ahal izateko.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Proiektugailua</li> <li>» Materialak</li> </ul>	Talde handia	Gela

### HELBURUAK

1. Gizarte-harremanen ingurua zabaltzea.
2. Beste pertsonen jaramon egitea.
3. Jakin-mina erakustea.
4. Protagonistak sentitzea.
5. Modu aktiboan entzutea.

# [ 6 ] "Baserri-eskolara bisita"

## JARDUERAREN GARAPENA

Baserri-eskola hezkuntza-baliabide on bat da Haur Hezkuntzaren Etapan. Baserri-eskola batera bisita batek balore hezigarri, sozial eta didaktiko handi bat duela esan daiteke. Horregatik interesgarria da baserri-eskola erabiltzea eskolako jarduera bat bezala. Mota honetako leku hauetara bisitan ateratzeak umeen heziketa osatzeko modu egoki bat ahalbidetzen du Haur Hezkuntzako Etapan. Baserri-eskola onuragarria da hartan inguruneari eta inguratzen gaituzten izaki bizidunei buruz asko ikas baitaiteke. Ikasleek ikusten dute, zuzenean, eskolan ikasi den guztia eta errealtatearekin zuzenean sartzten den esperientzia bat izan gabe ikasi ezin dutena. Baserri-eskola batera ateraldia egitea ikasleendako interesgarria, esanguratsua eta onuragarria da. Berezko ingurunea azal diezaiekegu ezagut dezaten, naturaren ezaugarriak ikusi, bertan bizi diren animaliena, haien portaera eta zainketak.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

Talde handia

Baserri-eskola

## HELBURUAK

1. Parte hartze zuzena.
2. Naturaren munduarekin harremanetan jartzea zuzenean.
3. Ingurunea eta haren arteko erlazioak ezagutzea.
4. Ikasitakoa elkarren osagarri izatea.
5. Ezagutzak harremanetan jartzea.
6. Gizarte-harremanak bultzatzea.
7. Beste testuinguru batzuetan moldatzea.

# Ekintza-esperimentazio jarduerak

Umeak haien bizitzan etengabe ari dira esperimentatzen. Haien historiaren egileak dira: berezko zerbait da, haien mundua esploratzeko eta gauzak manipulatzeko beharra baitute. Honek haien errealitatea ulertu ahal izatea ahalbidetzen die.

---

Hortaz, beharrezkoa da ulertzea ikasleek haien munduko alderdi interesgarriak aurkitzeko grina eta gogoak sentitzen dituztela. Hau soilik jakin-minaren akuilatze baten bitartez lortzen dute, aurkikuntzarengatik interesa pizteko xedearekin, honek ezagutza berrien ikasketari bidea eman diezaion. Gauzen gaitasun eta ezaugarriak aurkitzeko modurik onena adin hauetan esperimentazioaren eta ekintza zuzenaren bitartez da. Helburua ikasleei egunerokoan ezagutzetara hurbiltzeko aukerak ematea da, sinpleak lehen begiratuan, baina ikasleen garapen osorako ezinbestekoak eta beharrezkoak direnak.

Labur esanda, ekintza-esperimentazioak ikasketak nola bizitzen diren aztertzeko aukera ematen du, ikuspegi orohartzaile batetik. Lehen aipatu den bezala, haien ekin-tzen bitartez ikasleak haien zalantza eta ziurgabetasunei irtenbidea ematen doaz haiendako erantzuna behar baitute. Hortaz, tresna hauen bitartez, umeek beraien ikasketa eraikitzen dute.

# [ 1 ] “Baratzegela”

## JARDUERAREN GARAPENA

Hasierako jardueren bitartez gaiarekin hartualdia izan eta gero, gela apainduko dugu. Horretarako gelako partaide guztiek, irakaslearen laguntzarekin, fruta, barazki eta azienda irudi plastifikatu desberdinak jarriko dituzte. Ondoren, irudi bakoitza bere izena duen kartel batekin lagunduta joanen da. Izena talde moduan jarriko da, irakasleak izena esanen du eta ikasleek seinalatu beharko dute non jarri behar den. Behin irudiak jarririk dagozkien izenekin, berrikusketa orokor bat egingen da irudi bakoitzari buruz, haren azalpen labur batekin.

BALIABIDE MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Irudi plastifikatuak</li> <li>» Irudien izenak hizkuntza desberdinetan</li> </ul>	Talde handia	Gela

## HELBURUAK

1. Irudia izenarekin lotzea.
2. Irudiak deskribatzea.
3. Elkarlana sustatzea.
4. Irudiei izena ematea.





# BARATZEGELA





# BARATZEGELA









BARATZEGELA





# BARATZEGELA

GAZTELANIA

INGELESA

EUSKARA

VACA	COW	BEHIA
OVEJA	SHEEP	ARDIA
LECHUGA	LETTUCE	LETXUGA
TOMATE	TOMATO	TOMATEA
CALABAZA	PUMPKIN	KALABAZA
CEREZA	CHERRY	GEREZIA
MANZANA	APPLE	SAGARRA
PERA	PEAR	UDAREA
FRESAS	STRAWBERRY	MARRUBIAK



# [ 2 ] “Baratzeko txokoa”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honek ikasleei elkarrekin eragitea ahalbidetzen die eta euren baratzeko txokoa sortzea, ondoren jolasteko eta jarduerak egiteko erabiliko dutena. Irakasleak gunea eta material desberdinak eskainiko ditu. Halaber material bakoitza non jarri behar denaren argibideak emanen ditu, fruta eta barazkien artean, edota animaliangandik jatorria duten material eta elikagaien artean sailkapen bat eginez. Betiere ahaleginduko da materiala errearen antzekoena izaten, ikasleek kontzientzia har dezaten bakoitza benetan nolakoa den eta zein ezaugarri dituen. Leku bat presatuko dugu eskolako baratzari dagokion informazio guztia ipintzeko, baita baratzetako albisteak, intereseko informazioa, guztien egunkaria, landaketa plangintza, denboraldiko landaketak, argazkiak, marrazkiak, planoak, baratzeko lanabesak (arriskurik gabekoak), benetakoekin antza gehien duten elikagaiak ere ... “balitz bezala” eginez baratzean jarduera antzeztu ahal dezaten.

### BALIABIDE MATERIALAK

### TALDEKATzea

### LEKUA

- » Frutak
- » Barazkiak
- » Janaria
- » Lanabesak

Talde handia

Baratzeko txokoa

## OBJETIVOS

1. Euren gunea antolatzea.
2. Gai sentitzea.
3. Ordena eta garbiketa zentzua bultzatzea.
4. Antolaketa gustua izatea.
5. Modu hurbilago batez ezaugarriak ezagutzea.
6. Elkarlana sustatzea.
7. Aktiboki parte hartzeko unean motibatzea.

# [ 3 ] “Baratze-hiztegiaren azala”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau jarduera plastika bat da, ikasleek baratze-hiztegiaren azala modu pertsonalizatuan sortuko dute, ondoren egunez egun eskuratzen joaten diren hitzak idazteko erabiliko duguna. Baratze-hiztegiko azala kartoizkoa izanen da eta ikasleei material desberdinak eskainiko zaie haien gustura apaindu, margotu eta kolorezta dezaten.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Gomets</li> <li>» Hatz-margoak</li> <li>» Koloretako arkatzak</li> <li>» Koloretako papera</li> <li>» Goma-eva</li> <li>» Itsasgarria</li> <li>» Kola</li> </ul>	Banakakoa	Gela-tailerra

## HELBURUAK

1. Euren produkzioari garrantzia ematea.
2. Jarduerarekin gozatzea.
3. Motrizitate fina hobetzea.
4. Materiala errespetatzea.

# [ 4 ] “Zer dago nire baratzean?”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau atarikoia izanen da ikasleek jakin dezaten proiektuan zehar zer den landuko dena. Era berean, balioko du proiektuan zehar eskuratzen eta erabiliko duten hiztegiak pixkanakako kontzientzia har dezaten. Horretarako, aldez aurretik Interneten arakatuko dugu, gela-liburute-gian eta etxean jasotako informazioarekin, honen inguruan arituko gara: zer da baratze ekologiko bat, zein elikagai landatzen dira, zein desberdintasun daude baratze ekologiko baten eta ez ekologiko baten artean. Informazio guztiarekin eta erantzuna ematen ahaleginduko garen sortutako galderekin, horma-irudiak eginen ditugu eta gelan jarriko dira, ikasleak erraz joan daitezen ikusgai dagoen informaziora eta balora dezaten.

Informazioaren lehen harreman honen ondoren, pertsonaren bat gonbidatuko da, eskolako aita edo ama, aitatxi edo amatxia, edo baratze ekologikoko langileren bat, hitzaldi txiki bat egiteko. Haien lan egiteko modua kontatuko dute eta behar diren ezagutzak hari ekiteko. Baita ikasleek egiten dizkieten galderari erantzuna eman ere egingo dute.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

- » Proiektagailua
- » Kartoi meheak
- » Interneteko irudiak
- » Errotulagailuak
- » Koloretako margoak

Talde handia  
Talde txikiak

Gela

## HELBURUAK

1. Informazio bilaketa plan bat sortzea.
2. Lortutako informazioa baloratzea.
3. Elkarlanean lan egitea.
4. Baratze ekologikoari buruz alderdiak ezagutzea.



# [ 5 ] “Koloretzu koloreztatu”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau bost taldetan eginen da. Talde bakoitzak fitxa bat izanen du koloreztatzeko, collage teknika, hatz-margoak edota punteaketa teknika erabiltzeko. Jarduera plastika bat da, baina, gainera, motrizitate fina eta arte-teknika desberdinak erabiltzea ahalbidetzen du. Behin jarduera eginez gero, ikasleek idatzi edo grafo-motrizitatea praktika dezakete egokitu zaien fruta edo barazkiaren izena idatziz.


MATERIALES NECESARIOS	AGRUPAMIENTO	ESPACIO
<ul style="list-style-type: none"> <li>» 1. fitxa: Tomatea</li> <li>» 2. fitxa: Aza gorria</li> <li>» 3. fitxa: Uraza</li> <li>» 4. fitxa: Azenarioa</li> <li>» 5. fitxa: Piperrak</li> <li>» Errotulagailuak</li> <li>» Koloretako arkatzak</li> <li>» Collagea egiteko ebakigarriak</li> <li>» Hatz-margoak</li> </ul>	Banakakoa	Gela-tailerra

## HELBURUAK



1. Banakako lana sustatzea.
2. Materiala zaintzea.
3. Grafo-motrizitatea praktikatzea.
4. Motrizitate fina hobetzea.
5. Teknika plastika desberdinak ezagutzea.





KOLORETSU  
KOLOREZTATU





# KOLORETSU KOLOREZTATU




# KOLORETSU KOLOREZTATU



# KOLORETSU KOLOREZTATU



KOLORETSU  
KOLOREZTATU



[ 6 ]

# “Baratze-diseinatzaileak”

## JARDUERAREN GARAPENA

Baratze bat egitea planteatzeko garaian lehen urratsa dinamika eta jarraituko diren pausoak ezartzea da. Behar den denbora eskainiko zaio diseinatzeari, planifikatu eta erabilgarri dauden lekuen banatzeari, ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta emaitza onenak lortzeko. Hasi aurretik, komeni da landaketei eskainiko diegun leku erabilgarria zein den, luraren ezaugarriak, eguzkiaren orientazioa, beharrezko instalazioak eta landaketa-guneen banaketa oso argi edukitzea. Erabil daitekeen lekua gehienera aprobetxatzea komeni da. Urtean zehar ur erabilgarritasunean, erabiliko den ureztatzeko sisteman eta landatzeko teknikan ere pentsatuko dugu. Laguntza handikoa izanen da plangintza zehaztua koaderno edo agenda batean egitea marrazki eta eskemen bitartez, egiteko dauden eta egindako lanak idatziz. Baratzearen diseinua aurreprozesu garrantzitsu bat da, gakoa izan daitekeena proiektuaren ondorengo arrakastan. Elementu bakoitzak funtzio batzuk ditu eta bere lekua aurkitu behar du bete ahal izateko. Horretarako, irakasleak galderak eginen dizkie ikasleei, ideia zaparrada eginez, ondoren kontrastatuko dena egin behar den egokienarekin.

**I ATALA: Zein da leku hoberena baratze elementu bakoitzarendako?** Lehenik, banaka, baratzearen neurrien txantilo bat izanen dugu erabil daitekeen azalera erakusten duena. Txantilo honen barnean azaltzen joan diren irizpide eta aholkuei jarraituz elementu desberdinak jarri behar dira. Lorezaintza eta brikolaje aldizkarietan gela edo lursailaren baratzean jarri nahi ditugun elementu desberdinak bilatu eta ebakiko ditugu, baita landu nahi dituzten elikagaiak ere, diseinu proposamen bat osatuz.

**II ATALA:** Emaitza gainontzeko kideei erakusten zaie.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Baratzearen txantiloia.</li> <li>» Material ebakigarria</li> <li>» Guraizeak</li> <li>» Itsasgarria</li> <li>» Miniaturazko irudiak</li> </ul>	<p>I ATALA: Banakakoa</p> <p>II ATALA: Talde handia</p>	Gela

## HELBURUAK

1. Baratzea nola gustatuko litzaiekeen izatea irudikatzea.
2. Aurrea hartzea.
3. Baratze batek izan behar dituen elementu desberdinak ezagutzea.
5. Motrizitate fina sustatzea.
6. Irudimena garatzea.
7. Komunikazio-gaitasuna hobetzea.
8. Entzute aktiboa sustatzea.
9. Kideen lana baloratzea.

# [ 7 ]

## “Haize errotatxoak”

### JARDUERAREN GARAPENA

Zientifikoek tresna desberdinak asmatu dituzte meteorologia-fenomenoak neurtzeko. Errota ere haizearen energia aprobetxatzeko modu bat da eta balio ahal digu haren abiadura, intentsitatea eta norabidea ezagutzeko.

Horretarako kartoi mehe batean 15 zentimetro gutxi gorabeherako lauki bat marraztu eta ebakiko da. Ondoren, bi diagonal marraztuko dira, baina erdiraino bakarrik, laukiaren zentrorira iritsi gabe. Lau puntak zentroarekin elkartu eta itsatsiko dira. Eta zentroan tximeletarekin zulatu egingen da, bira egitea ahalbidetzeko. Atzean errotaren makila bezalako lastotxo bat jarriko dugu.

#### BEHARREZKO MATERIALAK

#### TALDEKATZEA

#### LEKUA

- » Kartoi mehea
- » Tximeleta
- » Lastotxoak
- » Guraizeak
- » Itsasgarria



Banakakoa

Gela-tailerra

### HELBURUAK

1. Neurtzeko beste tresna batzuk ezagutzeko.
2. “Laukia” forma geometrikoa identifikatzeko.
3. Manipulatzen den lana baloratzea.
4. Eguneroko gauzak erabiltzea.
5. Motrizitate fina laguntzea.





# [ 8 ] “Baratzetar kamisetak”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honetan geure kamisetak sortzea proposatzen dugu, baratzera joatean erabiltzeko. Familiei eskatuko zaie ikasle bakoitzak kamiseta txuri bat eraman dezala ikastetxera. Ondoren toxikoa ez den landare-tindagaiarekin koloreztatuko da eta ehunendako eranskailu bereziak jarri ere egingo ditugu.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Kamiseta zuria</li> <li>» Landare-tindagai natural ez toxikoa</li> <li>» Ehun-eranskailuak</li> </ul>	Banakakoa	Gela-tailerra

## HELBURUAK

1. Material desberdinak erabiltzea.
2. Euren kamiseta egitea.
3. Kamisetan marraztea.
4. Euren sorkuntza lanaren protagonistak izatea.
5. Koloreak nahastea.

# [ 9 ] “Loreontzi-euskarriak egiten ditugu”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honetan, gure gustuko lorontziak egitea proposatzen dugu. Horretarako eta lehenbizi, mahaiak estaltzeko zabor-poltsak ipiniko dira. Gelakideak bost pertsonetako taldeetan banatuko dira eta buztinezko lorontziak margotzeko beharrezko materiala aurkituko dute mahai gainean.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Buztinezko lorontziak.</li> <li>» Atzamarrekin erabiltzeko margoak.</li> <li>» Pintzelak.</li> <li>» Gometsak.</li> <li>» Zabor-poltsak.</li> <li>» Zeloak.</li> </ul>	Talde txikiak	Gela-tailerra

## HELBURUAK

1. Norberak bere lorontziak diseinatzea.
2. Azpialdeko pintza erabiltzen laguntzea.
3. Ukimena landu beste margo mota batzuekin.
4. Beraien sorkuntza-lanak baloratzea.
5. Materiala zaintzea.

# [ 10 ]

## “Ikertzaile txikiak, elementu arrotzak”

### JARDUERAREN GARAPENA

Ikasleek baratzaren alderdi ezberdinak behatu behar dituzte. Horrela ulertuko da baratza ekosistema bat dela, bertan dena elkarri lotuta bizi dela eta bakoitzaren funtzioa zein den. Baratza nolakoa den poliki aztertuko dute: zeintzuk diren baratza bateko berezko gaiak eta zeintzuk diren utzi direnak eta arrotz suertatzen direnak.

Horretarako, EnEKOk eta BIOletak baratzean kanpoko gauzak utzi dituzte, plastikozko animaliak adibidez, edo bertako landareetan kanpoko beste lore batzuk, edo baratza horretakoak ez diren hostoak... Jarduera honekin antzematen da ikasleek baratzeko zein gauza ezagutzen dituzten gehiago eta zeintzuk gutxiago, eta, ondorioz, gerora hobe landu daitezke. Baratzean lan-tresnak ipintzen baldin baditugu, antolakuntzari buruzko behaketan ere landuko dugu. Behaketa guztiaren amaieran, ikasleak biribilean eseriko dira eta ikusitako “gauza arraroez” mintzatuko dira, baita baratzeko gaiak eta elementu arrotzak ezberdindu ere egingo dituzte.

#### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Baratzean ipinitako elementuak

#### TALDEKATZEA

Talde handia

#### LEKUA

Baratza  
Gela

### HELBURUAK

1. Behaketa landu jakintza-bide gisa eta eremuarekin erlazionatzeko modu bezala.
2. Baratzaren ohiko gaiak ezagutzea.
3. Elementu naturalak plastikozko gauzetatik ezberdintzea.
4. Behatutakoa elkarrekin mintzatu.
5. Txandak errespetatzea.

# [ 11 ] “Haziak eta fruituak”

## DESARROLLO DE LA ACTIVIDAD

Baratzean jasotako fruituekin egingo da, edo bestela ikasleek etxetik ekarritako fruituekin; haziak zeintzuk dituzten jakin beharko da. Horretarako, fruituak irekiko ditugu eta haziak dituztenak eta ez dituztenak banatuko ditugu. Haziak fruituetatik aterako dira eta lehortzen jarriko dira bi edo hiru egunetan. Ondoren, marrazkiak dituzten fitxetan ikasleek fruituak eta haziak itsatsi beharko dituzte. Ikasle bakoitzak egindako fitxarekin fitxa-bilduma bat osatuko da, eta hori denen eskuragarri egongo da. Fitxa-bilduma hori, fruitu bakoitzaren haziak ezagutzeko baliatu dezakegu hazi motak landuz.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Fitxak fruituen marrazkiekin.</li> <li>» Fruituak.</li> <li>» Haziak.</li> <li>» Itsasgarria.</li> <li>» Eratzunak dituen fitxa-bilduma.</li> </ul>	<p>Banaka Talde handia</p>	<p>Baratza Gela</p>

## HELBURUAK

1. Fruitu bakoitza bere haziarekin lotzea.
2. Fruituen eta hazien fitxa-bilduma bat osatzea.
3. Fitxa-bilduma erabiltzea.
4. Parte-hartzea eta lan kooperatiboa motibatzea.
5. Fruitu bakoitzaren haziak ezagutzea.

# [ 12 ] "Lekale koadroak"

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau burutzeko haziak/lekaleak beharrezkoak dira: dilistak, indaba zuriak ala gorriak, dilista laranja... horiek, ikasleek itsatsiko dituzte eskuratuko zaizkien txantiloietan.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

- » Txantiloiak
- » Haziak / lekaleak
- » Itsasgarria

Banaka

Gela

## HELBURUAK

1. Gai ekologikoak xede artistikoekin erabiltzea.
2. Sormena lantzea.
3. Motrizitate fina lantzea.
4. Landareak zaindu beharreko baliabide gisa baloratzea.

# [ 13 ] "Labore egutegia"

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau ikasturtean ereingo direnak antolatzean datza (udazkena / negua / uda). Labo-  
rantzarako landareak hautatuko ditugu klimaren, eremuaren eta gure baratzaren ezaugarrien  
arabera (uraren eskuragarritasuna, lur mota...). Egutegi bat osatu, eta baratzean eta gelan  
paratuko dugu ereiterakoan, zaintzan eta jakiak biltzeko uneetan erreferentzia gisa erabiltzeko.  
Azpimarratzekoa da proiektu didaktiko honek hilabeteko iraupena duela, baina baratza ikas-  
turte osoan erabiliko dela; horrela, ikasitakoa hobe barneratuko da eta garaiko elikagaiak esku-  
tik ezagutuko dira.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEAK

### LEKUA

- » Plastikoarekin babestutako karto mehea
- » Ikasteko elikagaien irudiak

Talde handia

Gela  
Baratzeko txokoa

## HELBURUAK

1. Garaiko elikagaiak eskutik ezagutzea.
2. Garaiko elikagaiak era arduratsuan erabiltzea.
3. Urtaroek nekazaritzan duten onurez eta ondorioez jabetzea.
4. Ikasitako ezagutzak guztiz barneratzea.
5. Urtaro bakoitzeko landareak sailkatzea.
6. Landareak ereitea, zaintzea eta elikagaiak biltzea.

# [ 14 ] "Lekaleak landatzen ditugu"

## JARDUERAREN GARAPENA

Landare bat nola hazten den hobe ulertzeko eta bere zaintza zein garrantzitsua den barnertzeko ikasle bakoitzari landare bat landatu eta zaindu dezan proposatuko zaio.

Ikasleei eskatuko zaie etxetik jogurt-ontzi bat ala kristalezko pote bat eta lekale bat ekar dezaten. Kristalezko pote bat erabiliz gero, jarduera dibertigarriagoa gerta daiteke, hazia nola handitzen den ikusi ahal izango delako. Material guztiak eduki eta gero, ontzia kotoiez beteko da (erdia betetzearekin nahikoa da), gero hazia ontzian sartuko da gainazaletik 2 zm-ra, ondoren urrez-tatu egingo da, eta, azkenik, leku argitsu eta epel batean jarriko da.

Bi ala hiru egunen buruan, hazia puztuko da eta bi hosto sortuko ditu, horrek hazia ernatu dela adieraziko du eta gure esperimentua arrakastatsua izan dela.

Hortik aitzin, egunero minutu batzuk eskainiko ditugu hurrek euren landarea ur pixka batekin urrezta dezaten, heze jarraitzeko eta izango dituen aldaketak behatzeko.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

- » Kristalezko potea ala jogurt-ontzia.
- » Lekaleak.
- » Kotoia eta ura.

Banaka

Gela

## HELBURUAK

1. Landare baten zatiak ezagutzea.
2. Landare baten hazteaz arduradun bilakatzea.
3. Landareen zaintza sustatzea.
4. Natura zaintzeko motibazioa lantzea.



# [ 15 ] "Kiwi eta marrubi carpaccio tailerra"

## JARDUERAREN GARAPENA

Marrubiarekin eta kiwiarekin egindako carpaccio errezeta hau arina da, elikagai asko ditu eta freskagarria suertatzen da, bero handiko sasoietan batez ere. Ikasleek frutak dastatu eta jan dezaten beste modu bat gehiago da. Gainera, errezeta prestatzeko azkarra eta erraza da.

Aholkuak: beste fruta gorri batzuk erabili daitezke, andere-mahatsa adibidez. Banillazko izozkia ala laranja zukua erabili daiteke jogurtaren orde.

## KIWI ETA MARRUBI CARPACCIOAREN PRESTAKETA

1. Lehendabiziko pausua marrubiak ongi garbitzea eta kiwiak zuritzea da.
2. Kiwiak zerra borobiletan moztu eta marrubiak ebaki.
3. Plater zapal batean jogurt naturala zabaldu.
4. Platera jogurtaz estalita dagoenean, kiwi zerrak ipini gainazal guztian. Gero, marrubiak ipini; zati guztiak plateraren erdigunean jar daitezke.
5. Carpaccioa hautsez tatu glas azukre pixka batekin.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

- » 4 kiwi.
- » Marrubiak: 1/2 kg.
- » Zapore naturaleko 2 jogurt.
- » Glas azukrea.
- » Platerak.

Talde txikiak

Sukalde-Tailerra

## HELBURUAK

1. Neurrien erabileraren jabetza hartzea.
2. Fruta ezberdinak ukitzea.
3. Elikadura osasuntsuaren garrantzia ezagutzea.
4. Jarduerarekin ondo pasatzea.
5. Taldeko lana jorratzea.

# [ 16 ] "Limoi-edari tailerra"

## JARDUERAREN GARAPENA

Limoi zukua, ura eta azukrea besterik ez da behar bero sasoi-tako edari klasikoetako bat egiteko. Haurrentzako errezeta bikaina da haiek bakarrik prestatu dezaketelako eta C bitamina hartzen dutelako.

Aholkuak: Haurrentzako erakargarria suerta dadin izotzak itxura ezberdinekin egin daitezke: lore itxurakoak, bihotz itxurakoak...

## ETXEKO LIMOI-EDARIAREN PRESTAKETA

1. Limoiak zukutu eta haziak baztertu. Gorde zukua.
2. Azukrea uretan disolbatu. Ongi nahasi behar da, guztiz disolbatu arte eta hondarrik geratzen ez den arte.
3. Azkenik, limoi zukua eta menda ala mendafin hosto batzuk gehitu. Izotzekin edatera eman. Edalontziaren ertzak busti daitezke eta azukrez hautseztatu gero, haurrentzako gozoagoa izan dadin.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

- |  |              |                      |
|--|--------------|----------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>» 5 limoi</li> <li>» Azukrea: 200 gr</li> <li>» Ur hotza: 750 ml</li> <li>» Menda ala mendafin hostoak</li> <li>» Izotza</li> </ul> | Talde txikia | Tailerra<br>Jantokia |
|--|--------------|----------------------|

## HELBURUAK

1. Motrizitate fina hobetzen laguntzea.
2. Neurketa-unitate berriak ezagutzea.
3. Beraien ekoizpenaren protagonista sentitzea.
4. Lana taldeka egitea.
5. Jardunarekin ondo pasatzea.

[ 17 ]

# “Zentzumenen tailerra”

## JARDUERAREN GARAPENA

### I. ZATIA:

Jarduera honetan ikasle bakoitzari bere zentzumenen bidezko esperientziak erraztu nahi zaizkio. Kartoi kutxak erabilgarri izango ditugu, eta horien barnean elikagai ezberdinak egongo dira: jarduera honetarako fruta eta barazki ekologikoak eta ekologikoak ez direnak erabiliko ditugu. Ikasleen begiak estaliko dira eta eskuak kutxen barnean sartu beharko dituzte, orduan, ukimenaren eta usaimenaren bidez, barruan zer dagoen igarri beharko dute. Ondoren, ikasleek ikusmenaren bitartez elikagai ekologikoen eta ekologikoak ez direnen arteko ezberdintasuna nabaritu ahal izango dute. Azkenik, elikagaiak dastatu egingo dituzte, beraien gustukoak diren ala ez diren ezagutzeko.

### II. ZATIA:

Jardueraren bigarren zatian, guztion artean materiala jasoko da eta gero, asanbladan arituko gara. Mahai-inguru bat egin beharko da zer sentitu duten azaltzeko, izan dituzten beldurrez hitz egiteko, gustukoa izan den ala ez esateko eta zein elikagai nahiago duten adierazteko.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Kartoi kutxak</li> <li>» Begi-mozorroak</li> <li>» Fruta eta barazki ekologikoak eta ekologikoak ez direnak</li> </ul>	Talde handia	Gela-tailerra

## HELBURUAK

1. Elikagai ekologikoen eta ekologikoak ez direnen artean itxuraz dituzten ezberdintasunak aztertzea.
2. Begiak estalirik, gaiak ezberdintzea.
3. Zentzumena bereiztea: dastamena, ukimena, usaimena eta ikusmena.
4. Parte hartzea modu aktiboan.
5. Zentzumena era berezitan erabilia nola sentitu diren deskribatzea.
6. Iritzia ematea

# [ 18 ] “Zer zapaltzen dugu?”

## JARDUERAREN GARAPENA

Proposatzen dugun jarduera berria kontzientzia hartzeko baliokoa da. Jarduera erraza da, baina, aldi berean, aberatsa; behaketa zuzenean datza. Ikasleek lurzoruaren ezaugarriak egiaztatuko dituzte, lurzoru ezberdinak daudela jabetzeko asmoz. Behaketa gidatua bada, ohar gaitzke behaketa sinple baten bidez lurzoruaren ezaugarri batzuk ezagutzen ahal ditugula, eta behaketa zuzenaren eta senaren bitartez errealitatera hurbiltzen garela. Jarduera leku ezberdinetan egingo da, ez baratzean bakarrik, eskolako beste eremu batzuetara joan beharko dute eta bertako lurzoria zapaldu, orduan esperientziaz landu beharko dute. Ikasleek laginak jasoko dituzte eta kristalezko poteetan gorde. Irakasleak ikasleei galderak egiten ahal dizkie ikerketa gidatua izateko.

### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Pala txikiak
- » Plastikozko ontzitxoak

### TALDEKATZEA

Talde handia

### LEKUA

Gela  
Baratza  
Patioa  
Lorategia

## HELBURUAK

1. Lurzoria aztertzea behaketaren eta esperientziaz bidez.
2. Lurzoru ezberdinen oinarriko ezaugarriak ezagutzea.
3. Material ezberdinen osakera ezagutzea.
4. Kolore ezberdinak ezagutzea.
5. Aurkitzen ditugun lurzoria desberdintzea.

# [ 19 ] "Belar-burua"

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honetan "buru-handi iletsuak" egingo dira eta egunak aurrera egin ahala ilea luzatuko zaie. Jolas-jarduera bat da, baina "burua" egunero ureztatu beharra dagoenez, belarra hazi dadin, ohitura bat sortzen dugu. Lehenbizi, hanketan jazteko galtzerdi bat hartuko dugu eta bertan belarraren haziak sartuko ditugu. Ondoren, lurra jarriko da barnean pala txiki batekin eta nahikoa beteta dagoenean, muturrean korapilo bat egingo da eta goma bat jarriko zaio guztiz ixteko. Begiak eta ahoa irudikatzeko pegatinak itsatsiko dira. Plastikozko edalontzietan ipiniko dira. Egunero ureztatuko da eta belarra luzatuko da, ilea bezala.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Gomak</li> <li>» Hanketan jazteko galtzerdiak</li> <li>» Pegatinak, begiak eta ahoa irudikatzeko</li> <li>» Pala txikia</li> <li>» Ureztailu txikia</li> <li>» Plastikozko edalontziak</li> </ul>	Banaka	Gela

## HELBURUAK

1. Jarduerarekin ondo pasatzea.
2. Ureztatzeo ohitura bereganatzea.
3. Belar-ilea nola hazten den behatzea.
4. Motrizitate fina hobetzea.
5. Ureztatzea.

# [ 20 ] “Urazak landatzen ditugu”

## JARDUERAREN GARAPENA

Urazen bihotzekin betetako poltsak ditugu, barazki horiek eskolako baratzean landatzeko. Lehenbizi eta lanean hasi aurretik, baratzean aritzeko arropa egokia jantziko dugu, beste jantziak ez zikintzeko, eta, gero, eskolako baratzerara abiatuko gara eta beharrezkoak ditugun lan-tresnak eskuratuko ditugu. Jarduera talde txikietan egingo da zaila izaten baita guztiak aldi berean lan egiteko nahikoa lan-tresna egotea. Lurrean ildo bat zulatuko da pala txikiarekin eta bertan urazaren bihotza landatuko dugu. Azkenik, uraza txikiari lurra jarriko zaio alboetan eta ureztatu egingo dugu.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Urazen bihotzak</li> <li>» Pala txikiak</li> <li>» Lurra</li> <li>» Baratzean lan egiteko kamisetak</li> </ul>	Talde txikiak	Baratza

## HELBURUAK

1. Landatzeko prozesuaz jabetzea.
2. Beste inguruekin harremanetan egotea.
3. Txandak errespetatzea.
4. Lan kooperatiboa sustatzea.
5. Ukimenaren bidezko esperimintatzea.

# Komunikazio jarduerak

Haur hizkuntzaz jabetzeko eta berau garatzeko prozesua garapen ebolutiboan funtsezko elementua da, horregatik garrantzi bereziko arlotzat hartzen dugu.

---

Kontutan hartu beharra dugu irudikatze eta komunikazio tresnarik erabiliena dela, ikasteko tresna behinena dela, beste alderdiekin lotuta dagoelako: garapen intelektualarekin, gizarte garapenarekin eta garapen afektiboarekin.

Horretaz jakitun, ikasketa hau sustatu beharra dago jarduera ezberdinen bitartez, eta, horrela, ikasleek beraien autonomia pertsonalerako duen garrantziaz jabe daitezten. Horregatik, ikasgelako hezkuntza proiektu honek testuinguru anitzak biltzen ditu, familia eremua zabaltzen du eta komunikazio gaitasunak garatzea ahalbidetzen du.

# [ 1 ] “Asko al dakigu?”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau ekologiaren gaia lantzen hasteko sarbidea izango da. Ikasleek gaiaz duten ezagutza mailatik abiatuko gara. Testuinguru jakin bat ulertzea ahalbidetu behar dugu; horretarako eta gaia lantzen hasteko, ekologiari buruzko ipuin bat kontatuko da. Mintzagaia eta lan egiteko gaia pixkanaka ezagut dezaten baliagarria izango da ipuinaren kontaketa. Erabiliko den hiztegi berria ulergarria izatea lortu behar dugu beti.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

» Ipuina

## HELBURUAK

1. Entzuketa aktiboa sustatzea.
2. Hiztegi berria ezagutzea.
3. Testuinguru jakin batean ongi moldatzea.
4. Familia iruditegia lantzea eta hiztegi berriak ezagutzea.
5. Ipuinaren ideia nagusia ulertzea.





# “Iratxoen garaia”

Badago toki magiko bat, desiratzen dugun guztia egia bihurtzen ahal den mundu bat. Mundu hori zuena da, txikitxoena”. Sofiaren amak beti erantzun berdina ematen zion alaba txikiari ikusitakoaz galdetzen zionean, telebistan entzundakoaz jakinmina zuenean, edo irakasleak baratzean azaltzen zienari buruz gehiagoo jakin nahi zuenean.

Egun batean, neska txikiak amari esan zion eskolatik bueltan:

- Irakaslea klimari eta kutsadurari buruz mintzatu zaigu.
- Hara... Zer esan dizue? – galdetu zuen amak jakinminez.
- Kontatu digu klima pilo bat aldatu dela azken ehun urteetan eta aldaketa klimatikoaren kulpaa asko gizakiena dela. Pertsona txikiena ez! Handiena. Irakasleak esan digu denok erabiltzen ditugun gauza asko fabrikatzen direla eta aldatu beharko genituzkeela kutsatzen ez duten beste gauza batzuegatik. Zuhaitz mordo bat moztzen direla, gero landatzen direnak baino askoz gehiago, lurra planetari min ematen diotela eta planeta hau gure

etxea dela. Irakasleak gehiago kontatu digu, baina ez dut dena gogoan. Esan digun guztia egia al da? – galdetu zuen txikitxoak tristerik.

Amak alaba besoetan hartu eta bere magalean eseri zuen. Esan zion:

- Sofia, gogoan al duzu toki magiko bat badela eta mundu horretan desiratzen dugun guztia egia bihurtzen ahal dela? Toki horretan iratxoak ere bizi dira: iratxo batek dirdira indartsua du eta egunez argitzen gaitu, gainera, bere beroa oparitzen digu. Badakizu zein den?

Alabak dio: eguzki iratxoa.

- Oso ongi, alaba– amak erantzun dio – Beste iratxo batek gauero laguntzen digu. Batzuetan erdizka ikusten dugu, beste batzuetan bere laurden bat, noizbehinka osorik ageri zaigu eta beste zenbaitetan ikusezina da. Badakizu zeini buruz ari naizen?

Txikiak ez daki zer erantzun, zalantzak ditu eta horregatik amatxok esan egin dio: Il...Ila... Ilargi iratxoa! – ausartu da alaba.

- Zeinen ongi, Sofia - esan dio amak, zoriotsu , eta kontatzen segitu du - Behin batean, izaki horien bizitokiaren bazterrak nahastu ziren. Iratxoak Lurra planeta zaintzeko arduradunak dira eta oso triste ikusten zuten planetako zenbait biztanleek, gizakiak, kontsumitzen zuten guztiaren zaborra edonola botatzen zutela eta Lurraren erraiei min handia egiten zieten inolako axolarik gabe. Bizitzaren jarraibide naturala errespetatu gabe. Ama Natura oso kezkatuta zegoen bere alabaren gaixotasunagatik, Lurragatik.

Eguzkiak eta ilargiak bilera batera deitu zituzten Lurraren senide guztiak: iratxoak, nebak eta ahizpak, lehengusu-lehengusinak eta ama Natura.

Eguzkia mintzatu zen lehena eta esan zuen:

- Nik Lurrari beroa ematen diot. Nik egongo ez banintz, egunik ez legoke eta dena izotz-basamortu bat litzateke. Nik nagoen lekutik ikusten dut, gizakiak ez daki nire energia ongi erabiltzen! Zer uste dute, udako oporretan azala belzteko bakarrik balio dudala?

Eguzkiak amaitu ondoren, ilargia mintzatu zitzaien:

- Nik eguzkiaren argia islatzen dut gauero, bidaiariei argi pittin bat eskaintzen diet eta itsasoa mugitzen dut, itsaso luze zabala, arrain handiak elikatzen diren bazterretaraino. Olerkariak diote maitasunaren ikurra naizela. Gizakia lurra kutsatzen ikusten dut nagoen lekutik. Eguzki iratxoarengan eta nigan gertatzen ari denak eragina du, ezin ditugu gure zereginak bete.

Ilargiaren hitzak entzun eta gero, urtaroen iratxoak, udaberria, uda, udazkena eta negua, anai-arrebak, hitz egiten hasi ziren denak batera.

- Gu ere gaixotu gara.

- Gero eta zuhaitz eta lore gutxiago loratzen ditut -esan zuen triste udaberriak- zuhaitz gutxiago dagoenez, airea ezin da behar bezala garbitu! Gizakiak landare guztiak ebakitzen ditu gupidarik gabe eta gero ez ditu hazi berriak landatzen. Zuhaitz kimu gutxi daude! - kexatu zen - Hirietako porlan grisean enparantza gutxi daude eta han haurrak jolastu eta ongi pasatzen dute, baina lorategi oso gutxi dagoenez, ezin dute loreen usain ona hartu.

Udaberriak hitz egiteari utzi zionean, bero zapa handia nabaritu zen fantasiaren munduan eta Udaren hitzak entzun ziren, beste denak bezala gizakiaz kexu zen.

Petrolioarekin lortzen dituzten erregaiak ibilgailuen eta makinien motorretan erabiltzen dituzte etengabe; eta aerosolak fabrikatzen dituzte ozono-geruza minduz eta horiekin, ni nahastu naiz eta bero handia eman dezaket nire urtaroen eta nire anai-arreben urtaroen ere bai.

Udazkenaren txanda heldu zen eta esan zuen:

- Zuhaitzei ezin dizkiet hostoak erantzi Negu garaia etorri eta berandu arte. Eta Udaberriak eta Udak, neba-arrebak, ez dute nire txanda errespetatzen. Nork lagunduko dit min hauek sendatzen? - Udazkenak penaz galdetu zuen.



Neguak hitz egin zuenean, han bildutako guztiek berokia jantzi behar izan zuten. Ez zuten katarrorik hartu nahi.

- Oso nahastuta nago, zuek bezala, ezin ditut nire indarrak orekatu, ezta nire botereak ongi erabili ere. Kutsatu egin naiz; tropikoetako zonak izoztu ditut eta poloetan indarra galdu dut. Antartiko izotza urtzerik ezin dut gelditu. Gizakiarekin kezkatu nago, ez dira konturatzen lur eremu emankorrak eta hiri asko ur azpian geldituko direla.

Iratxoek ez zekiten arazoa nola konpondu, haiek denak nahasturik zeuden. Baina ipuin hau haurrentzako denez, eta fantasia nagusi denez... ama Naturak hitz egin zuen, dena dakielako:

- Zuetako bakoitzak mundua zeharkatuko du, eta herrialde guztietako, hiri guztietako, herri txikieneko, Lur osoko haurrak bilduko dituzue eta gertatzen ari dena kontatuko diezue.

Ama Naturak esandakoa txintxo bete zuten iratxoek, eta hogeita hamar egunez eta hogeita hamar gauetz Lurra planetako haur guztiek gertatzen ari zena aditu zuten.

Gomendio hau eman zitzaion: beraien gurasoekin hitz egin beharra zutela, eta helduak konbentzitu behar zituztela denen artean Lurra sendatu behar zutela esateko; ingurugiroari botatzen zaion kutsadura denen artean eten behar zutela, gizakien eta beste bizidun guztien onurarako. Haurrak, lur zoragarri honetako etorkizuneko helduak, eskatutakoa egin

zuten. Tartean presidentearen alaba bera bere gurasoekin mintzatu zen; zientzialariaren semea bere amatxorekin; agintariaren txikiak ere berean egin zuen; medikuaren seme-alabek mintzatu zuten aitarekin; industria-langilearen semeak aitari jakindakoa esan zion; merkatariak alaba aditu zuen; militarrek gauza bera egin zuen; beste langileak ere etxeko txikiari adi-adi entzun zion...

Denek hitza eman zuten eta une horretatik aurrera familia bakoitza ekologia zaintzeaz arduratu zen; gizakien eta ama naturaren arteko harremanen arduradunak izan ziren. Iratxo guztiak sendatu ziren: Eguraldia, Eguzkia, Ilargia eta Lurra ere bai, noski!

Geroztik, urtaro bakoitzak zereginak garai onean egin zituen. Loreek, zuhaitzek, animaliek, intsektuek eta hurrek, istoria honetako heroiak, aire garbia arnastu zuten berriro; denok beharrezkoa eta merezia dugulako. Jai itzela egin zuten eta denek irribarre eta dantza alaiak egin zituzten.



# [ 2 ] "Galde galderak"

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau ipuina irakurri eta gero egingo da, ikasleek nekazaritza eta abeltzaintza ekologien kontzeptu berriei buruz zer ulertu duten jakiteko eta horri buruzko ideia orokor bat lantzeko. Horretarako, aurretik prestatutako galdera sorta bat izango dugu eta irakasleak ikasleei galde-tuko die. Gurekin dauden ikasleei galderak egitea eta haiek ere beraien galdera egiteak elkarri-zketa bidezko komunikazioa<sup>1</sup> sustatzen du, baita batzuen eta besteen arteko komunikazioa eta irakaslearekiko komunikazioa.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

» Galdera sorta

Talde handia

Gela

## HELBURUAK

1. Txandak errespetatzea.
2. Ipuinean entzundakoa gogoratzea.
3. Parte hartzea sustatzea.
4. Ekologiari eta abeltzantzari buruzko ideia nagusi eta orokor bat lantzea.
5. Gaiari buruz interesatzea.

<sup>[1]</sup> *Elkarrizketa bidezko komunikazioa*: igorlea eta hartzailea elkarrizketa bidez komunikatzen diren egoera oro. Komunikazio mota honen ezaugarri nagusia solaskide guztien beharra da, igorlea eta hartzailea, biak ezinbestekoak dira, komunikazio mota hau ahoz gertatzen da eta solaskideak tartean modu berdintsuan daude, harreman zuzena emanez.



# GALDE GALDERAK

1. Zeri buruz hitz egiten du irakasleak?
2. Zergatik ematen dira klima-aldaketak?
3. Zein iratxo da egunez distira egiten duena?
4. Zein iratxo da gauzez distira egiten duena?
5. Zeintzuk dira lau seme-alabak?
6. Nortzuekin hitz egin behar dugu Lurra zaintzeko?
7. Nola lagundu dezakegu, parte hartuz, elikagaiak zaintzen?
8. Nola dakigu elikagai bat ekologikoa den?
9. Zein onura dute elikagai ekologikoek?
10. Zein lotura dago ekologia eta ingurumena zaintzearekin?

# [ 3 ] “Elkar ditzagun gure ideiak”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honetan **sare kontzeptual** bat eratuko da. Sare kontzeptual bat eratzeak ikasleei eta irakasleari landutako hitzak edota ideiak elkar lotzea ahalbidetzen die. Hitz-gako nagusi batekin ematen zaio hasiera, kasu honetan “EKOLOGIA” hitzarekin hasiko gara eta aipatzen diren beste hitzak erlazionatuta egon behar dute (ala ez), eta horiek, gerora beste hitz batzuekin erlazionatuko dira. Sare kontzeptuala osatzeak ideia orokor bat egitea ahalbidetzen du, kontzeptu guztiak elkarri lotuta agertzen dira era sinple eta orokor batean.

### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Klarionak
- » Arbela

### TALDEKATZEA

Talde handia

### LEKUA


Gela

## HELBURUAK

1. Taldeko lana sustatzea.
2. Modu aktiboan parte hartzea.
3. Kontzeptu ezberdinen arteko erlazioak egitea.
4. Ideia orokor bat lantzea.
5. Gai ezberdinak lotzea.



\*Adibidea



# [ 4 ] “Elkarrekin ikasten dugu”

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera honek eztabaida txiki bat ematea ahalbidetuko du, ikasketa esanguratsua<sup>2</sup> sustatuz. Ikasketa prozesuaz jabetzeko mesedegarria da. Jarduera asanbladan burutuko da, ikasleak irakaslearekin batera baratzean, eskolako baratzean zehazki, landatu daitezkeen barazkiez mintzatuko dira, eta barazkiak edota landareak landatu eta erein ahal izateko beharrezkoak diren lan-tresnez. Ikasgelan gaiarekin erlazionatuta dauden irudiak erabil daitezke jardueraren garapena errazteko.

### BEHARREZKO MATERIALAK

» Flashcards-ak

### TALDEKATZEA

Talde handia

### LEKUA

Gela

## HELBURUAK

1. Eztabaida sustatzea.
2. Norberaren ideiak adieraztea.
3. Jakintzak erlazionatzea.
4. Txandak errespetatzea.
5. Landatzeko eta ereiteko beharrezko materialak ezagutzea.
6. Leku bakoitzean zein elikagai landa daitekeen deskribatzea.

<sup>[2]</sup> *Ikasketa esanguratsuaren definizioa:* aurretik ikasitako jakintza ezberdinen eta jakintza berrien arteko eragin-trukearen emaitza da eta testuingurura moldatzeko gaitasuna ere, gainera, pertsonaren bizitzaren une zehatz batean erabilgarritasuna izango duena da.



# ELKARREKIN IKASTEN DUGU



# [ 5 ] “Ikusi makusi!”

## JARDUERAREN GARAPENA

Irakasleak baratzaren zaintzarekin erlazionatuz klimari eta naturako gaiei buruzko igarkizunak kontatuko ditu. Jarduera hau egin daiteke baratzean, lan zehatz bat egin aurretik, ala ikasge-lan baratzari buruzko hiztegia hobe barneratzeko. Ikasleek ustezko erantzun zuzena ozenki esango dute, parte hartze aktiboa bultzatuz. Irakasleak ikasleak erantzuna ezezaguna dutela somatuko balu, lagungarriak aipatuko lituzke, haurrak izan daitezten igarkizunaren erantzuna ematen dutenak. Alternatiba bezala irudi bidez lagundu daiteke eta ikasleei marrazki batzuk (fitxa eredu bat) luzatu, bertan igarkizunaren erantzuna agertu beharko da eta hurrek arka-tzarekin inguratuko dute.


BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Fitxak</li> <li>» Igarkizunak</li> <li>» Arkatza</li> </ul>	Talde handia Talde txikia	Gela

## HELBURUAK

1. Entzumen aktiboa sustatzea.
2. Ikasitakoaz jabetzea.
3. Hiztegia aberastea.
4. Erabakiak hartzea.
5. Erantzun zuzena inguratzea.
6. Beste ideia batzuk errespetatzea.
7. Erantzun zuzena bilatzea.



IKUSI  
MAKUSI!



1 Hegorik gabe hegan egiten dut, ahorik gabe txistuka nabil, eskurik gabe gauzak mugitzen ditut eta zuk ez nauzu ukitzen.

2 Kotoizko puxiken antzera zeruan paseatzen dira eta urez betetzen direnean lur gainean pixa egiten dute.



3 Biribila naiz, egunean agertzen naiz eta gauean, aldiz, Ezkututzen naiz.



4 Euria eten duenean eta eguzkia ageri, kolore guztiak etortzen zaizkit niri.




5 Gizontxo lodia eta oso gorria, kaferik inoiz ez du edaten, baina beti tea edateko garaiz dena.



IKUSI  
 MAKUSI!

6



Urak zeharkatzen du nire etxea, Kateak nire bihotza. Asmatzen ez duena, asto buru handi bat izango da.

7

Zapore mingotsua du eta bere azala nahiko gogorra da, edateko gogoa baldin baduzu, ongi estutu beharko duzu.




8

Ikusi makusi, zer zuritzen da tripa handi batetik, poltsa edo saskian eramaten dena eta verdea denean, keinuak eginarazten dizuna dena?



9

Azal, aza, azalera;  
 flor, flor, florera:  
 si estamos juntas,  
 ¿Qué planta apuntas?



# [ 6 ] “Lanabesen ipuina”

## DESARROLLO DE LA ACTIVIDAD

Ipuin honetan baratzean erabiltzen diren zenbait lan-tresna azaltzen dira. Inplizituki elkarlana eta lan kooperatiboa lantzen du, horrela, denek garrantzi berdina dute; besteengan fidatzea eta haien lana beharrezkoa da emaitza onak lortzeko. Amaieran, ipuinean azaldutako gauzei buruzko galderak egingo dira ikasleek esanahia ongi ulertu dutela ziurtatzeko.

### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Ipuinaren testua.
- » Galdera sorta.
- » Lanabesen irudiak.

### TALDEKATZEA

Talde handia

### LEKUA

Gela

## HELBURUAK

1. Entzuketa aktiboa sustatzea.
2. Elkarlanari eta laguntzari buruz hitz egitea.
3. Baratza batean beharrezkoak diren lan-tresnak ezagutzea.
4. Elkarlanaren ideia ulertzea.
5. Galdera eta erantzunaren arteko erlazioak sortzea.

# “Lan-tresnen ipuina”

Herri txiki batean, aroztegi famatu bat zegoen bertan altzari galantak egiten zirelako. Egun batean, aroztegiko lan-tresnak asanbladan elkartu ziren beraien arteko desadostasunak argitzeko. Denek elkarte zirenean, mailuak hitza hartu zuen, presidentea zelako:

Adiskide maiteak, asanbladan gaude eta orain esan. Zein da arazoa?

- Presidente izateari utzi behar diozu- esan zuten askok.
- Zergatik? – jakin nahi izan zuen mailuak.
- Zarata handia egiten duzulako!- entzun zen aretoaren atzeko aldetik, eta aldi berean bertaratutako askok hori baieztatzen zuten buruarekin.
- Gainera -hasi zen esaten beste tresna bat-egun osoa dena kolpatzen zabilta.

Mailua triste sentitu zen eta huts egin zuela

pentsatu zuen.

- Horixe nahi baldin baduzue, ongi da, utziko diot. Eta nork nahi du presidente berria izan?
- Ni - aurreratu zen torlojua.
- Ezta pentsatu ere!- Oihukatu zuten lan-tresna askok batera- zuk buelta asko emanaz gero bakarrik zara erabilgarria eta horrela oso motela da dena.
- Ni izango naiz - adierazi zuen paper-latzak.
- Ez, inoiz ez!- erantzun zion gehiengo batek - Oso latza zara eta besteoi igurtzi besterik ez diguzu egiten.
- Nik hartuko dut presidente kargua! - Jakinarazi zuen metroak.
- Inola ere ez! Besteak neurtzen igarotzen duzu eguna, besteok neurtzen jakingo ez bagenu bezala - esan zuen lan-tresna txiki batek.



Eztabaidaren gogorrean ari zirenean, arotza agertu zen eta lanean hasi zen. Han zeuden lan-tresna guzti-guztiak erabili behar izan zituen, bakoitza zeregin zehatz baterako. Ordu batzuk lanean eman eta gero, lurrean pilaturik zeuden egur puskak altzari eder batean bihurtu ziren eta

horrela, bezeroarentzat prest zegoen. Arotza altxatu zen, altzari egin berria behatu zuen eta irri egin zuen, pozik, egindakoa hain txukun ikusi eta gero. Lanerako mandarra erantzi zuen eta aroztegitik joan egin zen.

Asanblada berriro batu zen ziztu bizian eta aliketa hitz egiten hasi zen:

- ‘Adiskide maiteak, agerikoa da denok hobetzeko gauzak ditugula, baina horretaz gain, eta oraintxe ikusi dugun bezala, gure dohainei esker altzari zoragarriak egiten ahal dira’.

Lanabesek elkarri begiratu zioten, baina ez zuten ezer erantzun eta aliketak hitz egiten jarraitu zuten:

- ‘Gure dohainek garrantzi handiagoa dute gure akatsek baino. Mailua indartsua da eta berari esker piezak elkartzen ditugu; torlojuak ere piezak elkartzen ditu eta indarra ematen digu mailuak ezin duen txokoetan; paper-latzari esker alde latzak leun geratzen dira; metroa zehatz-zehatza da eta horregatik eskatzen dizkiguten neurriak ongi prestatzen ditugu; denen alde onak deskribatzen jarrai dezaket!’

Hitz horiek entzun ondoren, lan-tresna guztiak konturatu ziren lana taldean eginez gero, benetan ere, baliokoak zirela eta tresna bakoitzaren ahalmenak izan behar zituztela kontuan



# GALDERA SORTA

1. Zein lanabes agertzen da lehena?
2. Zein lanabes gustatzen zaizue gehien? Zergatik?
3. Zergatik ez dute nahi mailua izatea?
4. Ipuin hau eta gero zer ikasi duzue?
5. Zergatik ez dute nahi torlojua presidente izatea?
6. Zein altzari egitea gustatuko litzaizueke?
7. Zer gertatzen zaio paper-latzari?
8. Zer esaten diote metroari?
9. Zer egiten du arotzak?
10. Zer dio aliketak?



# [ 7 ] "Gure baratzeko arauak"

## JARDUERAREN GARAPENA

I. ZATIA: Eskolako baratzaren antolakuntzaren arau guztiak eztabaidatu eta adostuko dira lau arlo hauen inguruan:

- » Lan-tresnak nola erabili eta nola zaindu.
- » Objektuekiko eta besteen lanarekiko errespetua.
- » Taldeko lanak.
- » Higiene, garbitasun eta segurtasun arauak.

Irakasleak hurrei arauen inguruko mintegi bat emanen die, gaiari sarbidea emateko. Arauak beti eta edonon beharrezkoak dira, baita jarduerak garapen egoki bat eduki ditzan ere. Asanbladan elkarturik, ikasleak eta irakaslea, eskolako baratzean haien aburuz egon beharko lukeen arau-tegiak mintzatuko dira. Ikasleek arauak esan ahala irakasleak arbelean idatziko ditu; arau asko aipatu direnean, horietatik bost arau nagusi aukeratuko dira eta arau nagusi horiek horma-irudietan jarriko dira.

Ziklo guztien artean afixak prestatuko dira ( testuarekin eta irudiekin) ongi adieraziz eta gogora ekarriz baratzeko lan-tresnak erabiltzeko arauak, eremuaren erabilerako arauak eta laborantza zaintzeko arauak, lan egiten dutenentzat eta bisitatu ahal dutenentzat.

Leku egokietan eta eraginkorretan ipiniko dira: baratzean bertan, lan-tresnak gorderik dauden lekuan, eskolako sarreretan... Hezkuntza komunitate osoa informaturik dagoela ziur gera dadin.

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Koloretako kartoi meheak</li> <li>» Zeloak</li> <li>» Koloretako errotulagailuak</li> <li>» Aldizkarietatik moztutako zatiak</li> </ul>	Talde handia	Gela

## HELBURUAK

1. Beraiek hartutako erabakien jabe izatea.
2. Negoziazioa sustatzea.
3. Elkarrizketa erraztea.
4. Materiala errespetatu eta zaintzea.
5. Mugak ezagutzea

# [ 8 ] “Ikastetxeko umeak eta ekiloreak”

## JARDUERAREN GARAPENA

Irakasleak “Lucia eta ekiloreak” izeneko ipuina ozenki irakurriko du; ipuin hori izanen da amaieran performancea eginda antzetzuko dena.

**I. ZATIA:** Ipuina entzun ondoren, haurrek istoriara hurbiltzeko jarduera bat egingo dute: ipuinarekin zer ikusia duen marrazki bat egitea.

**II. ZATIA:** Ikasleei fitxa bat emanen zaie eta bertan ipuineko gertaeren marrazkiak nahastuta agertuko dira. Zenbakiak jarri beharko dizkiete marrazkiei kontakizunean entzundakoa zuzen antolatzeko. Haur txikienei fitxa bat eman beharrean, irudiak handiagotuta emango zaizkie eta antolatu beharko dituzte.

**III. ZATIA:** Ipuina antzetzu (AMAIERAKO JARDUERA).

BEHARREZKO MATERIALAK	TALDEKATZEA	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>» Ipuina.</li> <li>» Fitxa.</li> <li>» Irudiak.</li> </ul>	I. Zatia: banaka II. Zatia: talde txikian	Gela

## HELBURUAK

1. Aktiboki entzutea.
2. Ideiak erlazionatzea.
3. Motrizitate fina bereiztea.
4. Denbora-gertaerak antolatzea.

# LUCIA ETA EKILOREAK



Luciak eskolan ekilore hazi batzuk landatu ditu lorontzi txikietan.

Haziak landare bilakatu dira, eta dagoenekoek, prest daude baratzekeo lur berrian landatzeko.

Luciak eta gainontzeko gelakideek landareak eraman dituzte baratzea.

Irakasleak esan die aitzurra eta eskuarea behar dutela.

– Eta ureztailua- esan du Luciak.

Lan-tresnen gelara doaz eta behar dituzten lan-tresna guztiak eskuratzen dituzte.

Luciak lurrian ildoak zulatu du, ekilore bat landatzeko behar handia, eta irakasleak erakutsi dio lorontziari kolpetxo batzuk joaz landarea erraz ateratzen.

Luciak landarea ateratzen du kontu handiz eta ildoaren barruan ipini du, landarearen

alboetan lur gehiago jarri du eta bere eskutxoekin estutu.

- Ongi egina- esan dio bere irakasleak..

Ondoren, Luciak beste hurrekin batera beste ekilore guztiak landatzen ditu.

- Oraindik gauza garrantzitsu bat dugu egiteko- aipatu du irakasleak.

- Ureztatu behar ditugu! - dio Luciak.

Luciak ureztailua bete du eta guztien laguntzaz ekiloreak ureztatu dituzte.

Handik aurrera, Luciak ekiloreak ureztatzen ditu egunero bere adiskideekin batera eta nola hazten diren behatzen dute.


Baratza eguzkitsua da eta ekiloreak asko hazten dira, ekilore hori ederrak bihurtu arte.

1.



A large, rounded rectangular box with a light gray background and a fine grid pattern, intended for writing.

2.




A large, rounded rectangular box with a light gray background and a fine grid pattern, intended for writing.

3.



A large, rounded rectangular box with a light gray background and a fine grid pattern, intended for writing.

4.




A large, rounded rectangular box with a light gray background and a fine grid pattern, intended for writing.

5.



A large, rounded rectangular box with a light gray background and a fine grid pattern, intended for writing.

6.



A large, rounded rectangular box with a light gray background and a fine grid pattern, intended for writing.

# Azken jarduera

---

# [ 1 ] “Performanzea: eskolako haurrak eta ekiloreak”

## JARDUERAREN GARAPENA

**III. ZATIA:** Komunikazioari dagokion atalaren 8. jarduerarekin jarraitzen du.

Ipuinaren antzezlan da.

### BEHARREZKO MATERIALAK

- » Ipuina
- » Irudiak

### TALDEKATZEA

III. Zatia: talde handia

### LEKUA

Gela

## HELBURUAK

1. Aktiboki entzutea.
2. Ideiak erlazionatzea.
3. Motrizitate fina bereiztea.
4. Denbora-gerterak antolatzea.
5. Ipuina antzeztea.



## ANTZEZLANEAN EGITEKO IPUIN MOLDATUA

(IKASMAILA).....ko hurrek (ESKOLAREN IZENA) ..... eskolan ekilore haziak landatu dituzte lorontzi txikiekin.

Haziak landare bilakatu dira eta dagoeneko prest daude baratzeke lur berrian landatzeko.

Gelako hurrek landareak eraman dituzte baratzera.

**HAURRAK:** Ongi, asko handitu dira!

IRAKASLEAK esan zien:

– Hartu bakoitzak pala txiki bana.

ETA HAURREK oihukatu zuten: Eta ureztagailua!

Lan-tresnen gelara doaz eta behar dituzten lan-tresna guztiak eskuratzen dituzte.

Hurrek lurrian ildoak zulatu dituzte, ekilore bat landatzeko behar handia, eta irakasleak erakutsi die lorontziari kolpetxo batzuk joaz landarea erraz ateratzen.

Hurrek landareak ateratzen dituzte kontu handiz eta ildoen barruan ipini dituzte, landareen alboetan lur gehiago jarri dute eta beraien eskutxoekin estutu.

– Ongi egina- esan die bere irakasleak.

Oraindik gauza garrantzitsu bat dugu egiteko - aipatu du irakasleak.

– Ureztatu behar ditugu! - diote denek.

Hurrek ureztailua bete dute eta denen laguntzaz ekiloreak ureztatu dituzte.

Handik aurrera, (ESKOLAREN IZENA).....ko hurrek ekiloreak ureztatzen dituzte egunero eta nola hazten diren behartzen dute.

Baratza eguzkitsua da eta ekiloreak asko hazten dira, ekilore hori ederrak bihurtu arte.

Orain, hurrek baratzean landatutako ekilore ederrak patataz, urazaz, letxugaz eta azenarioz inguraturik daude, eta beraien gainean tximeleta, erle ibiltariak eta marigorringo txikiak pausatzen dira.

# [ 2 ] "Gosari ekologikoa"

## JARDUERAREN GARAPENA

Jarduera hau lpuinaren performancea (antzezlan) bukatu ondoren egingo da. Otordu txikia eskainiko da, Nafarroako gai ekologikoekin prestatuko dena. Hezkuntza komunitate guztia elkarrekin egongo da, gurasoak ere bai. Etxekoek gai ekologikoak dastatzea ahalbidetzen dugu eta haiek zuzenean dastatu dezakete nekazaritza mota honen zapore eta itxura onak, eta bere onurak zeintzuk diren jakin dezakete.

### BEHARREZKO MATERIALAK

### TALDEKATZEA

### LEKUA

» Produktu ekologikoak

Talde handia

Areto nagusia, pasabidea

## HELBURUAK

1. Familiaren eta eskolaren arteko harremanak hobetzea.
2. Elkarrekin gustura egotea.
3. Elikagai ekologikoak dastatzea.
4. Eskolatik elikagai ekologikoen kontsumoa sustatzea.
5. Elikadura osasuntsuaren alde onak zabaltzera eman.





Jardueren  
sailkapena  
arloen arabera



OHITURA

BEHAKETA - IKERKETA

EKINTZA - ESPERIMENTAZIOA

KOMUNIKAZIOA

# Jardueren sailkapena arloen arabera

	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

## Ohitura

» Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala				x	x
» Inguruaren ezagutza	x	x	x	x	x
» Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikatzea	x	x	x		x

	1	2	3	4	5	6
--	---	---	---	---	---	---

## Behaketa - ikerketa

» Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala		x	x	x		x
» Inguruaren ezagutza	x	x	x	x	x	x
» Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikatzea	x	x	x	x	x	x

	1	2	3	4	5	6	7	8
<b>Ekintza - esperimentazioa</b>								
» Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala	x	x	x	x		x	x	
» Inguruaren ezagutza	x	x	x	x	x	x	x	
» Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikatzea	x	x	x	x	x	x	x	x
	9	10	11	12	13	14	15	16
» Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala		x			x	x	x	
» Inguruaren ezagutza		x	x	x	x	x		x
» Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikatzea	x	x	x	x	x	x	x	x
	17	18	19	20				
» Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala	x	x	x	x				
» Conocimiento del entorno	x	x	x	x				
» Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikatzea	x			x				

	1	2	3	4	5	6	7	8
<b>Komunikazioa</b>								
» Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala		x	x	x	x	x	x	
» Inguruaren ezagutza	x	x	x	x	x	x		x
» Hizkuntzak: komunikazioa eta irudikatzea	x	x	x	x	x	x	x	x

**Ebaluazioa**



JARDUEREN PUNTIKETA  
1ETIK 1OERA

INKESTA

# Jardueren puntuaketa 1etik 10era

Ebaluazio honetan, irakasleak ala irakasle taldeak jarduerak 1etik 10era baloratu behar dituzte, jarduera bakoitzari puntuazio bat jarritz. Jardueraren balorazioa ekintza martxan dagoenean egin behar da, edo bestela amaitu berritan. Taula hau behar den guztietan errepika daiteke, jarduerak behin baino gehiagotan egin daitezkeelako; kasu horietan, ikasitako jakintzak hobe barneratzea eta jardueraren ezagutza hobea izatea lortuko da.

---

Hauek dira baloraziorako baremoak: jarduerak 5 puntu jasotzen baldin baditu, egokitzat onartuko da; 6ko puntuazioarekin gainditu egingo du; 7 edo 8 puntuko emaitza lortuz gero, jarduera oso ona izango dela ondorioztatuko da; eta 9 edo 10 puntu lortuz gero, jarduera bikaina da; puntu 1 eta 4 punturen arteko balorazioa behin jasotzen baldin bada, jarduera moldatu beharko da hobetu aldera. Kontuan hartu beharra dago adin hauetan jarduera berdinen aurrean erantzun oso ezberdinak lortzen direla, horregatik, emaitza kaxkarrak lortzen dituzten jarduerak zuzenean ez albortzea gomendatzen da.

Ikasleek jarduerak egiterakoan izan dituzten erantzunak ezagutzeko gida bat bezala uler daiteke ebaluazio hau.



1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

### Ohiturak

» 1. Jarduera										
» 2. Jarduera										
» 3. Jarduera										
» 4. Jarduera										
» 5. Jarduera										

### Behaketa eta ikerketa jarduerak

» 1. Jarduera										
» 2. Jarduera										
» 3. Jarduera										
» 4. Jarduera										
» 5. Jarduera										
» 6. Jarduera										
» 7. Jarduera										

### Ekintza eta esperientazio jarduerak

» 1. Jarduera										
» 2. Jarduera										
» 3. Jarduera										
» 4. Jarduera										
» 5. Jarduera										
» 6. Jarduera										
» 7. Jarduera										
» 8. Jarduera										
» 9. Jarduera										
» 10. Jarduera										
» 11. Jarduera										
» 12. Jarduera										
» 13. Jarduera										
» 14. Jarduera										

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
» 15. Jarduera										
» 16. Jarduera										
» 17. Jarduera										
» 18. Jarduera										
» 19. Jarduera										
» 20. Jarduera										

### Komunikazio jarduerak

» 1. Jarduera										
» 2. Jarduera										
» 3. Jarduera										
» 4. Jarduera										
» 5. Jarduera										
» 6. Jarduera										
» 7. Jarduera										
» 8. Jarduera										

### Amaierako jarduerak

» Performancea										
» Gosaria										

# Inkesta

Inkesta txiki hau Ikasgelako hezkuntza proiektua bukatuta dagoenean egitea gomendatzen da, hobetu beharreko aldeak kontutan hartzeko.

---

- 1** Proiektu hau ikasleriaren adinera eta jakin-minera egokituta al dago?
- 2** Jarduerak ikasleriarentzat erakargarriak dira?
- 3** Proiektuaren antolamenduari behar bezala egokitu zaio erabilitako espazioa?
- 4** Aldez aurretik pentsatutako denbora eta benetan erabilitakoa bat datoz?
- 5** Eskaintako materiala erabilgarria da?



**Ebaluazioa**



OHITUREN EBALUAZIOA

BEHAKETA ETA IKERKETA  
JARDUEREN EBALUAZIOA

EKINTZA ETA ESPERIMENTAZIO  
JARDUEREN EBALUAZIOA

KOMUNIKAZIO JARDUERAK

AMAIERAKO JARDUERA

FAMILIENTZAKO GALDETEGIA

## Ikasgelako hezkuntza proiektu osoan jarduera sorta handiarekin lan egiten denez, ebaluazio jarraitu bat egingo da Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleekin ari garelako.

---

Behaketa sistematikoa ebaluaziorako tresna izango da informazio zuzena eskuratzeko: jarreraren inguruan, ikasleen erantzuna jardueren garapenean eta amaitu ondorengo asanbladaren inguruan.

Agertzen diren hurrengo tauletan ebaluatzen da jarduera bakoitzaren helburua lortu ote den eta helburua lortzeko prozesua garatzen ari ote den, eta hori lortzeko oharrak, hau da, landutakoa ikasketa-prozesua izan dadin ohar aipagarriak ala interesgarriak. Helburua lortzeko jarduera baliagarria ez balitz, oharren atalean idatziko da. Kontuan hartu beti, ikasleek jakintzak barneratzeko burutzen dituzten prozesuak ezberdinak direla, eta horregatik, une oro, ikasketa-prozesua errespetatu beharra dagoela.



# Ohituren ebaluazioa

- » Egunerokoan ezarritako ohituak betetzen ditu
- » Denboraren jabetza du
- » Autonomia eta oreka pertsonala dauka
- » Abestiekin atsegina hartzen du
- » Abestien letrekin bat datozen mugimenduak egiten ditu
- » Parte hartzen du aktiboki
- » Hiztegi berria erabiltzen du

Lortutakoa	Egiten	Oharrak

# Behaketa eta ikerketa jardueren ebaluazioa

- » Zentzumen ezberdinak erabiltzen ditu
- » Modu sistematikoan aritzen da
- » Ikerketarako estrategia ezberdinak erabiltzen daki
- » Ikerketa sinpleak egiten ditu
- » Fruta eta barazki ezberdinak ezagutzen ditu
- » Elikagai ekologikoen eta transgenikoen artean ezberdintzen daki

Lortutakoa	Egiten	Oharrak

# Ekintza eta esperimertzio jardueren ebaluazioa

	Lortutakoa	Egiten	Oharrak
» Ikerketak modu aktiboan egiten ditu			
» Bere kabuz aritzen daki			
» Eztabaidetan parte hartzen du			
» Ekiteko estrategiak garatzen ditu			
» Haziak eta frutak ezagutzen ditu			



# Amaierako jarduera

---

## Oharrak:

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

Azkenik azpimarratzekoa da, ebaluazio honetan arloka azaldutako objektuez gain, beste ebaluazio tresna askorekin lan egingo dela: ahoz asanbladan egingo den ebaluazioa; tartean burutu beharreko eztabaidak; amaierako asanblada; ikasgelako egunerokoa idatzi daiteke eta bertan ohar garrantzitsuak jarri; eta, eguneroko ebaluazio jarraian, Haur hezkuntzako ikasleekin egonik derrigor egin beharrekoa.

# Familiantzako galdetegia

---

## 1 Proiektua interesgarria iruditzen zaizue?

Oso interesgarria    Interes gutxikoa    Berdin digu

## 2 Zuen seme-alabak proiektu hau gauzatzeaz zer iritzi duzue?

Gehiegi da    Ondo dago    Berdin digu

## 3 Azaltzen den informazioa....

Gehiegizkoa    Nahikoa    Gutxi    Oso gutxi

## Behaketak eta iradokizunak:

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---



**Ondorioa**



Hezkuntza proiektua behin burututa, ondorioztatzen dut eta hausnartu dut baloreetan hezitzea zein garrantzitsua den; ekologiaren balorearen garrantzia azpimarratzen dut lan honetan. Umeak jaio eta hezkuntzako lehen urteetan ekologia zer den jakitea oso garrantzitsua da; hiru eta sei urteko pertsonak izanda, ekologia ezagutu dezaten garrantzitsua da, gainetik bada ere. Jakintzaren eta beraien esperientzien bitartez, bakoitzaren izaeraren garapena errazagoa izango da eta gizarteratze hobea suertatuko zaie, gizartean ekologiari eta ingurunea zaintzeari lotutako gaiak indar nabaria hartzen ari dira eta.

Familiak eskolan laguntzeak funtsezko garrantzia du, ikasgela barruko ala kanpoko ekimen ezberdinetan parte hartzea, familia eta eskolaren arteko harremana sustatzeko.

Irakasleak ikasleei hezkuntza egoki bat ziurtatu behar die eta oinarrizko ezagutzak ikasteko gida izan behar du, kasu honetan ekologiaren gaineko oinarrizko ezagutza, gainera, motibazioaren garrantzia beti eduki behar da kontuan.

Edozein proiektu aurrera eramateko, baina zehazki ikasgelako hezkuntza proiektu honi buruz ari garela kontuan izanda, beharrezkoa da denboraren, eremuaren eta testuinguruaren erreferentziak edukitzea garatu beharreko jarduerak koherentziaz eta zentzu orokor batekin hornitzeko.

Proiektuen bidez lan egitea prozesu luzea da, etengabeko hobekuntza lortzen delako bide zikliko batean, hau da, ez da inoiz amaitzen. Proiektu batean hezkuntza komunitate guztiak parte hartzen du eta ikasleen beharrei erantzuten saiatu beharra dago, beraien parte hartze aktiboa lortzeko xedearekin.

Era berean, familiak jarrera aktiboa izatea, eskolan eta etxean, zein garrantzitsua den azpimarratu behar da, hezkuntza proiektuan jasorik dauden, eta eskolan lantzen diren baloreak barneratzea ahalbidetzen duelako.

Proiektu honen programazioan arreta jarri nahi dut ondorioen zati honetan. Metodologia parte hartzaile bat mahaigaineratu da ikasleak lagundu, eta inolako presiorik gabe ongi molda daitezten; modu berean, asanbladak, eztabaidak etab. proposatu dira parte hartzea sustatzeko, aldi berean, gainera, gunehorietan egindako lanaren edukiaz gogoetatzen da. Jarduera guztiak jolas giroan gauzatzea proposatu da ikasgelan giro ona nagusitzea eta ikasleen motibazioa ahalbidetzeko.

Azken gomendio gisa, ikastetxeek eta eskolek alderdi ekologikoak gauzatzea beharrezkoa dela azaldu nahi dut. Irakasle komunitateak ekologiaren gaiarekin zer ikusirik duten formakuntza jasotzea oso garrantzitsua dela adierazi nahi dut ere.

Azaldutako guztiarengatik, ikasgelarako hezkuntza proiektu honek ekologiaren alde ezberdinak modu kohesionatuan eta koherentean biltzen ditu, parte hartze aktiboa sustatuz, izan taldeka edo banaka, eta familiaren laguntza bilatuz, modu integral batean garatzeko.



**Bibliografia  
eta webgrafia**

Ramón, C (2014). *Guía del Huerto escolar*. Madrid: Editorial Popular.

Barberà Gregori, E (1999). *Evaluación de la enseñanza, evaluación del aprendizaje*. Barcelona: Edebé.

Galindo, R; Ramirez, S; Rodriguez, J (1993). *El conocimiento del medio en la educación infantil, bases teóricas y propuestas didácticas*. Barcelona: Koiné ediciones.

Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Ekoizpenaren Kontseilua

Navarra BIO, egunkari digitala

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Kontseilua

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioa

Reyno Gourmet

Nekazaritza Ekologikoaren Espainiako Elkarte (SEAE)

Interco. Kontrol eta Egiztatze Erakunde Publikoen Elkarte

Europar Batasuna. Nekazaritza Ekologikoa

Fertilidad de la tierra. Nekazaritza eta baratza ekologikoari buruzko argitaletxea





navarraecologica / @navarraeco

[www.navarraecologica.org](http://www.navarraecologica.org)